EGUNA JEL

Lgo. urtia | 66'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 16'gna. eguena | 15 eunen

Ama ilgo zara notzen azpian, ilgo zara zeu betiko? Itxaron Ama jarion biot, neure odola lenago!

ARANA-GOIRI

Tanger'etik diñoenez gudari geyago sartu dira Ceuta'n

Gudaritzara beartutearen bigarren urteurena ospatuteko jai zoruak Alemania'n. Frantze'ko diru laguntza.-Eiffel dorrea lurera botatera duaz.-Katolikoen aurka Alemani'n.-Nazitarak azpitik Viena'n.-Van Zeeland eta Degrelle aurez-aurre.

GOYAN BEGO

Korta'tar Joseba Mirena jauna

Negarrezko erbeste onen itzala!...

Zartada bat izan eban atzokoan be gure biotzak. Izpirearen mingotsa, saminaren sakona! Sinistu nai ez, eta sinistu beharra; iruntsi nai ezin, eta jasan egin beharra! Zeure nagia, Jaun ori, bete bedi.

Korta eta Uribarren'tar Joseba Mirena jaun agurgarria il da! Joan da, iges egin dausku, eta malko-izurrika utzi gaitu, otoi eskeinka.

Euzko-Gudarosteko komandante gendua; ez ordea izkilu-agindaritzakoa, apaizena baño. Euzko gudarien kapelauen buruzagi: Kisto'ren deya beñola entzun ebanetik gantarte, gogo-gudaetan, Gurutzea garaitzale izateagatik arisku nai lor, galdu-gorde ala estutasun, bere salean gudaldirik gogorrenean be, gogoen gurenda bila adorez eta kementsu jardun dauana.

Bere sala ezin utzi, bere menpeko artzainak ezin laga, eta beraz nun, antxe izan dogu. Asturias aldera jo beharra izan dau, eta El Pando'n, artzaingo gurenean ari zala, bala galdu batek bizitza arla eten, eta Ar'zai Nagusia'gana jo dau bertatik aren gogoak.

Munduko arazuen artean azkenengoz egin euskun egitada bikaina, orain'dik ora'n; epaikariak eriotzea epaipe'u zituen iru emakumien alde "indultoa" eskatu eutsan Euzko Jaurlaritza'ri, euzko-apaiz kapelauen izenez.

Apaiz eta euzkotar zintzo! ¡Zorionkide zaite Gol ortan!

NUEVA YORK'EN PAXISTEN AURKAKO BATZARRA

Nueva York.—Arañegu antxitik Madison Square Garden'en egin zan mitiñean 40.000 lagun izan ziran gitxienez ta Nueva York'ko alkate Mr. Laguardia'k itz egin eban. Jaun auxe izan zan Alemania'ko ordezkariari asaretu eragin eutsona, Hitler ta Hitler'en asmoei buruz esan ebazanak esan ebazalako.

Oraingo itzaldian, be, hitlertar alkondara afedunak itsu bildurgarriak zirala esan eben.

TANGER'DIK DATOZAN IZPARRAK CEUTA'N "REGULARES" GUDARI-TALDEA ITXASONTZIRATU DALA DIÑOE

Tanger.—España'ko paxisten mende dagon porturen baterako asmoz Ceuta'n italiar gudarosteko gudar.talde bat itxasontziratu dala diñoe Tanger'era etofi diran barriak.

PRANTZIA'KO GOBERNUA'K OARRA "EZ SARTZEKO BATZORDEA"RI

Paris.—"Le Populaire" izparingiak diñonez Prantzia'ko Gobernua'k "Ez sartzeko Batzordea"ri oar bat bialdu dautso ta oar ofetan España'ko guda oiñetan italiar gudariak ugari dabiltzala adierasotez dautso.

JAI ZORUAK

Berlin — Gudaritza biartu zan bigarren urteurena ospatuten dala ta Alemani'n jai zaratatsuak egiten diardue.

Gudaletxe (kuartel) guztietan komandanteak itzaldi luzeak egiten ditue jayaren anditasuna gogoratuaz.

DIRU LAGUNTZA

Londres.—Jakin danetik ez saltzeko batzordeak egin eban azkenengo batzarean españarei diruz laguntzeatzaz jardun zan.

KATOLIKOEN AURKA

Vaticano — "L'Osservatore Romano"k agertzen daben idazlan baten alemanen katolikoen aurkako lanak erakusten ditu. Konkordatoa ainbat aldiz apuftu dabela, diño, bereziko ikastola gayetan.

AMAITU DA

Paris.—Iru mila miloe batzeko Frantze'ko Gobernuak zabaldu eban diru laguntzea bete da eta amaitutzat emon da.

BAI GERO?

Paris —Frantzetar izparingiak uste osa dauke gogozko gudariak España'tik atarratea lortuko dala-ta.

ATZOKO BATZARRA

Londres.—Ez saltzeko batzordeak atzo egin eban batzarratzar agiri bat zabaldu da. Bertan esaten dan lez bitzar ofetan kontrola egin al izateko gai batzuek erabili ebezan.

ALKARREGAZ JARDUNEAN

Londres.—Kontrolerako ordezkariak jardunaldi bat izan dabe. Jardunaldi au egin dabenak Plymouth. Van Dum eta Oliveira jaunak izan dira.

NAZITARAK ATXILOTU

Viena.—Ogetamabi nazitar atxilotu dittue Lintz'en, ixilpeko naotzak sortu nai zituela-ta.

VAN ZEELAND'EN AGERPEN BAT

Bruselas.—Efi onetan egingo dan auteskunde dala-ta Van Zeeland'ek agerpen bat zabaldu dau.

Auteskunde onetan Van Zeeland eta Degrelle agertzen dira aurez-aurre.

Van Zeeland'ek esan dau: Efiak ba' dauko zer erabagi. Edo bakezko politikea, orañarte nik zuzendu dodana eta Degrella'k saltu nai daben indar agintaritza.

* * *

Paris.—Egun gitxi barru, Torre Eiffel ospe ta entzute aundikoa, eratsiteko aginduko dau Gobernu pantzetarak. Urte biko epea izango dau lan orek.

Paris'ko 1889'garreneko Erakusketa Orokara'ko ikuskizun andientzakotzat egin zan, eta aurtengo Paris'ko erakusketan be, gauza ikusgarientzat etsia da. Lenengo eran barik, aldatua izan da, ordea. Lenengo oin zabalean eta bigarrean zituen denda eta jantoki itsusiak kendua dago orain.

Aurten, argiz beteko dabe dorrea, eta argi aldakorrezko ituri bat'litzan jariko dabe.

Irratia edo radioa asmau ebenetik, partzetar Gobernua'ren aginduak bere koloniara lurraldetara, Eiffel'etik edatu eta barreatuten izan dira. Iragarkiak, be, esaten izan ditue.

Edertasunari dagokionez, Torre Eiffel orek itsuri emoten izan dauala ikuspegia moteldua, esan daroe Paris'ko ederzaleak, eta bere aurka jardun dabe beti be.

Trocadero jauregia grezitar eleiz antzera barriztauten diarduenez, toki ori tutarez kendu barik ez dabe bakerik izan edertzaleok-eta, eratsitea naitaezko etsi dabe, eta olantxe bearko.

Goibe edo altura 985 oin ditu, eta Sena ibayaren ezkerraldeko ibarean dago Marte'ren zelaya deritzan tokian.

Eiffel eikindari edo ingeñeru prantzesak egin eban asmo-marazkia. Burdaz eta irarrez bete eben, ordea, ezagun eta jakintsuak zorakeritzat etsiqz. Asmoa, ostera, egi biurtu zan. Eta uste bi buru, Eiffel izena ezarri eutson dorrea egiña zegon, mundu osoaren ikusgarri.

GURE GUDARIAK

"Itxasalde" sailditaren ikurriña-onespena. Jai andiak Laudio'n

Boga, boga, marinelak!

Itxasaldeko gudari arrantzaliak jai andia daben ikurriñaren onespena, bedeinkaziñoa egingo dabe.

Zarata eta ospetasunik emongo dautse jai oneri "Itxasalde"k, gudariak erime ta bizkorrak dira onetan.

Abenturaren aldez aurrenen ibili diran gudari bularrtsuok, ikurriñaren onespen jayean estabe nai atzian geratu.

Ori dala ta sekulakoj egitaraurik andiena gertu dabe. Ara:

EGITARAUA

Gau.—Gabeko saspi ta erdietan txistularien biribilketak.

Biyar.—Goizeko saspiretan: Txistulariak goiz eresi alayak joko ditue.

Zortziretan: Jaunartzenmeza parokian.

Amaiketan: Meza nagusia. Gudasaileko abeslariak Perosi'ren iru abotsetakua abestuko dabe.

Amabietan: Ikurriñaren onespena.

Ondoren ezpatadantzariak dantza-alaiozkorrak dantzatuko ditu Lagi-Zarra'ren enparantzan.

Ordu batetan: Bazkaria.

Iruretan: Pelota jokuak ikusgarriak. Bitartetan soka-tira, sako-lasterketak eta abar.

Ondoren euzko efomeri zaratatsua.

JANARIAK Madrid'era

Madrid.—Madrid'go erritarrentzat eta gudarientzat janari asko darue. Aragon'dik batez be, asko bialdu dabe. Levante'tik eta Cataluña'tik be, janari asko bialdu dabe.

Aragon'go uri batzuetatik azkenengoz 2.000 kilo orio, zortzi patata-zoro bost gari-zoro, jaboi garagar ta beste bareko diran gauza batzuk, be, bai.

EGAZKIÑAK

SU ARTU TA barrukoak il

Colonia.—Imperial Airways Batzarrena zan eta Londres'tik Colonia'ra osteraltza ebilan egazkiña, atzo gabaz sua artu ta Colonia'tik 25 kilometrora lurera jausi da.

Holmes egazkin zuzenlaria, Langman ifatzkinlaria ta Hoelley bidarj batzarra erre-erre egin zitan eta il. Imperial Airways Batza'ko Zuzendaritariko bat zan.

SU ARTEAN

Itzaldiak egiten Madrid'en. - Guadalajara aldean poto paxistak.-Komunistak eta "Suzko Gurutzak" - Miaja gudalburua, Guadalajara'n. - Beste izparak.

ITZALDIAK EGITEN

Madrid.—Dicenta antzokian, itzaldiak izan dira komunista alderdia'k eratuta. Erkiko idazkariak, Anton'ek, egin eban lenengoa.

Valencia'n, alderdiak egin dauan batzar nagusia oraindik orain, gorabera andikori izan dala, iñoan, eta eztuaziña.

Batzar aitako erabagiak aztertu zituen; gudasail barriak eratutea bearreko gauza danez, lenbailen burututea, egoki baño egokiago da. Guda-oñetatik jatsi gabe, ile bi osoan dagozan gudariak beste batzuk aldatu dagiezan, atsedenduteko.

Hernandez mintzatu zan gero. Politika alderdiak il dirala, eta sindikato ordezkarien Gobernua izango dala uzengoa diñoenak, ez dagoz zuzen. Komunista geyenak sindikatoetan dagoz; eztau beraz politika jokaerak eriotzarik. Frente Popular'ek oso iraun begi: garaitza ikusia batasun orixe da.

GUDA IZPARRAK

Guadalajara.— Azkenengo aftutako lurraldeak gotortuten jardun dabe erizaleak. Efi-Ikaskuntza ministruaz batean, guda-oñik oin ibili zan ikusten Miaja gudalburua.

Paxisten egazkiñak paperak jaurti zituen erkaldar gudarien lekuetara, paxisten aldera iges egiela onu ta aolku emonaz, ez ebezela ilgo abinduaz.

Madrid zearo esi barruan daukela diñoe ingi ofeik eta lastar artzeko asmoz dirala.

Zazpi italiar soldau aftu ditue preso. Geyago be aftu dituela diñoe.

Guadalajara aldean italiarak bultzaka azi ziranetik 250 italiar baño geyago jausi dira erizallen eskuetan.

KOMUNISTAK ETA "SUZKO-GURUTZAK"

Paris.—Clichy'n zaparrada ta naspilla izan dabe Suzko Gurutzekoak eta komunistak. Balez zaurituak 20 izan dira.

MIAJA, GUADALAJARA'KO [illegible] ETAN

Madrid.—Estado Mayor dalako nagusiekin batean, bere menpe dagoza guda-oñak ikustera urten eban Miaja jeneralak eta batez be, Guadalajara'ra. Iluntzean itzuli zan Madrid'era.

ERI-LANAK - MINISTRUA MIAJAKIN IZKETAN

Madrid.—Miaja gudalburuaz izketaldi luze bat izan dau Efi-Lanak zaingoko ministruak.

Jarayan izparkariak aguntu zituen Miaja'k, eta Guadalajara'tik atzegiñez biurtu zala esan eutsen, eta gudariak gogotsu eta adorez egozala.

Valencia'n ministruak egingo eben batzarera eldu al izango zan, ez ekian.

✝

Korta eta Uribarren'dar Joseba Mirena JAUNA

(Guda-jauparijen Gudalburu Nagusija)

Asturias'en il zan, atzo, 1937'ko Epaila'ren 17'an, 33 urtedun

Ikurtonak eta Doipuru Onespena artuta

(Goyan bego)

Euzko Alderdi-Jeltzalia'k, Euzko Gudaroztea'k, Korta'tar Silberi, aitak; Jakinda Mirena, Miren Eskarne, Mirea Nekane eta Miren Begoñe, anai-arebak; Korta'tar Pulgentse eta Garai-Artabe'tar Urbeliñe (Uribarren'en alarguna), ixenekoak; lengusu eta enparau senideak.

Bere adizkidiei eskatuten dautse Jaungoikua'ri bere gogoaren alde otoi dagijoela eta gauz, arratsaldeko iru ta erdietan, Begoña'ko Iltegi'ko senitarteko obira eroan aurretik, Euzko Gudaroztea'ren etxetik (Gran Via, 45) Galan eta Garcia Hernandez'en enparantzaraño egingo dan gorpu-laguntzara juan daitezala eta larunbatean, Abando'ko Bingen Deunaren erixadonan, goxeko zortzi ta erdijetan egingo diran elizkixunetara juan daitezala, guztiz eskarruak ixango diralako.

Laudio

EGUNA.—Pozik irakurten dogu eguneroko edef au gudarien aftean. Itxasalde batalloyan geyen irakurten dana auxe da. Batalloi onetako guztiak euzkeldunak gara eta zaletasun biziz egoten gara gure izparingi au noiz agertuko.

JAI BAT.—Gure agintariak jai andi eta edef bat gertuten diardue Joseba deunaren egunerako.

Goizean meza nagusia esango da eta bertan gudariak abestuko dabe... Gero aizkolariak, afijasotzaleak, pelota partiduak eta egingo dira. Jai onek zaletasun andia softu dabe ez bakafik gudarien aften. Eritafen aftean be gar bizia softu dabe. Laudiotafak begi onez ikusten gaitue eta poz-pozik dagoz gugaz.

IKURIN BAŔIA.—Gure batalloiko ikufin bafia ikusi dogu. Gure agintariak jakin dabe nori emon bera egiteko. Eta bai ederto egin be gure neskatila bigunak.

Ordorika intendentzak begi zolia ibili dau onetan, beti ibilten daben lez.

"GASTE BELU,,'RI.—Zer egiten do zu adizkide maite orek aspaldi onetan idatzi barik? Zure izparen zain egoten gara aspaldio.. eta...

Noiz afte adizkide?

UDABAŔIA.—Laster dogu udabafia be. Txorjak kantetan asi daitenian eta mendiak loraz bete beste gogo bat izango dogu gudariok mendian gure abefiaren aldez eta paxisten aurka gudatuteko.

Z. J.

Durango

Irakufleak: Guda onetik ara zelako eskutiza bialdu deusten, iru gudari eibaftafak, gure ele maitagafian idatzita. Gazte onek guda asi zanetik geyago Abefiaren deiari erantzuten dagoz; ez dira egun biko gudariak, ez bada zortzi ilabete onetan guda aufera dala bidez gure efiaren aldeztzale urten eben, gazte kementsu oneik. Irakufle: gazte onen ixenak argitalduten dodaz euzkel-atal onetan gure izkuntzan gudari gorengoak diralako. ¡Beti aurrera, gudari gazteok!

"Durango, 1937'gn. zezelan 22'n.

Untzetabafenetxea'taf Josu. — Fuejo (Trubia).

Neure adizkide eta Abefiaren gudari kementsuak: Aftu dot tuen 17'ko idazki netako Abefiaren gudariak! Berezibaf'taf Jon, Untzetabafenetxea'taf Josu eta Kortabitafte'taf Bingen. Iru gazte onek zuzentzen dausten eskutitzan ara ber diñosten:

"Fuejo (Trubia), 1937'gn. zezelaren 17' garenan.

E.'taf L. jaunari, agufi: Zuk ain maite aftu giñuzun iru gudariak eskutitz labur txubat idatzi gura izan dabe atzefi onetatik, esanaz osasuntsu aurkitzen gerala Jaungoikua'ri eskefak, eta usterik berdin aurkituko zeratela zure sendiagaz batean. Itxaropen andiagaz aurkitzen gera egun bat Tabira ortan zubekaz igarotako, eta. Emen jażoten diran goraberak zuberi esateko. Geiago barik aguftzen zaitue iru gudari onen ixenian besarkada aundi bate gaz, zuretzat, zure emaztiarentzat eta senli guztiantzat.

Untzetabafenetxea'taf Josu."

Erantzuna:

"Durango, 1937'gn. zezelan 22'n.

Untzetabafenetxea'taf Josu. — Fuejo (Trubia).

Neure adizkide eta Abefiaren gudari kementsuak: Aftu dot tuen 17'ko idazki ain maitekofa, zeñen bitartez ikusten dodan iru gudari eibaftafok, ondo aurkitzen zariela guda aufean gure efia lotuntza eztuenakaz ipifii gura daben arerio ankefen aurka. Gu zuben antzera osasunagaz Jaungoikuari eskefak. Adizkide onak: diñozue gugaz zafi gomutetan zariela ta aldi gutxi bafu gura zeudukiela egun bat iru... etxean, eta bide batez guri esateko orko gora bera guztiak. Jakin egixue gure etxea zubena dala eta poz atseg'ñez aftuko zariela ain apal eta lotsaz iraun zendnelako gure etxean. Guk otoi egiten dogu guda aufean aldezten dagozan euzko-seme gustiakaitik, ta zuok be otoi labur... ez bada be, egunero eskatu goi eskafa, aldenduteke afizkuetatik. Aftu egixue gure besarkada maitekofena, eta geyago baga aldentzen naz zuben adizkide...

E.'taf L."

Irakufleak: Euzko-odola bere sanetan daukagun euzko-semeak era onetan eskutsi gura leuke benetako abeftzalea ixaten, eta ez toki askotan ikusten doguna, gure izkuntza jofatu eta ofaztu beafean, espafiatafak baño erdel'a'eagoak ikustea.

SORKUNDE

"Euzkadi"

"Luf-Gofi" idazle jayuarena da lenengo zefendako idazlana.

Gixafte zuzutsari deragoyo. Eta gixafte-zuzutsa, langilien zuzutsa dala diño.

Zuzutsori, bafiz, kistaf irakatsi zuzenak egintzakaz irakasten dabezan gixabez loftu leikena dala bayeztuten dau.

Langilien aldezko ta gixabetza osuaren aldezko zuzutsa ludiratu ixan ebana, an Kosko tegi-menajan gu... su Kisto ixan zala agertuten dau.

Laburu Abearen itz batzuk afatuten dauz. Aba agu gafi arek, ba, langilien aldezko itzaldi baten, olantxe esaten ei eban: "Kistaf-ikasbidia ta ogija."

Irakatsi aundiko itz areik entzun ixan ebezan ugazaba ta aberats askok, langile zuzutsaren zoritxaferako, gauza bat baño ez e...ben ikasi: kistaf ikasbidia. Baña ez eurentzat, langilientzat baño. Langilien ogi-ordez emoten eutsena, kistaf ikasbidia irakasten daben inguraztija ixaten ei zan.

Ogija, ostera, eurentzat gordetan ei -eben.

Gixafte zuzutsa edo justizija erabiltzeko era ori, zuzutsa goratuteko barik, ostikopetuteko era berezija ei da.

Gure gurarija beste au e...da, baña: langilaren zorijona loftutia, benetako gixafte zuzutsa gixarteratutia.

"Tierra Vasca"

Paxiotafen zabalgunde bakunari derago yo, paxiotaren txoriburukerijei.

Gudarzkilubakaz ezer lortu ixan ez dabenian, ingitxubakaz gudea egiten asi ei dira. Eguzkiñetan igoten ei dira eurretatik ing...bidezko zabalgundia egiteko.

Ingitxu ofeik, euzko-abertzaleentzat idatzijak ei dira, ta katoliko-antzo euzko-abeftzalei zuzenduten dautsezenak.

Uskufizearen arcyuak diran gofijakin batuta ibili barik, areikandik ufundu dagixala esaten ei dabe.

Paxiotaf bakun eta txoriburu ofeik egazkiñetatik botaten dabezan ingitxubok, baña, zabalgunde aundirik ez ei dabe egingo, euretan idatzita zabaltzen dabezan guzufai jaramonik egingo dautsan abertzale bat be ez dabela idorokotza.

Paxiotarakan uartuten dan gauzarik afigafijena, ain gofoto dabezan euzko abeftzaliak txefe...bidiak ziaf galdu ez dedixantzat aftzen daben ardurea ei-da.

"Lan-Deya"

Guda ezeskafi onek oldozkun jafi dau. Gudea bide dala, gixonak gixon bata bestiaz bufuka gogofian ikusten dauz; txorija baxen alayak ziran umetxubak egazkiñetatik botaten dabezan suaga-berunbil erailzaliak ikusiko etedabezen bildufazgoiko ixafetara begiratuten bilduf dirala.

Gastaruan alkafekin ikastolara ta alkafekin jolastuten ziran gastedijak, guda oin bonatan jafijaz bata-bestia... txikitxubak aña barik; anayak anayen aufka...

Eta egunak-egun, astiak-aste ta iliak ile igazita be, gudeak ekafi ixan daben guda-tramankuluak euren eten bako zeregiñian diardube: gixonak erailfen, uri ta basurijak deuseztuten.

"Euzkadi Roja"

Era bateko efiketearen aufka dago Gorputz bateko laterkerea, paxiotafak gura dabena e...da, Franco etoyak eskatuten dabena.

Laterkera ori ugazabaen ogasunak aldeztuteko dala agertuten dau, eta ez langilien eskubidiei yaoken laguntasuna egiteko.

Paxiotafak aldeztuten daben laterkera ori, Euzkad"rako be, kaltegafi ixango litzakelakua agertuten dau.

Langiliak euren lana bide dala ekaften daben aberastasuna, ugazabaen eskubetara jausten dalakua be ba diño. Eta gixafiian dan bardin ez ori bardinduteko...a, soin bateko laterkerea era berezija ez dala uste dau.

"El Liberal"

Oviedo'n, egunotan, gudaka gogofik ez i da egiten.

Areyuari aftutako gudatokijak sendotuten ei-deragyoe, ta ofa...tze bafijetafako gertetan.

Beste aldekuak be geldi ei dagoz. Erkal - egazkiñak eurak egiten dakijezan egaizkada bijufijetan, Navia'ko egazkintokira eldu ei ziran, eta paxiotafen egazkintokijari kaltial...kalte egin.

Afatsaldian, bafiz, Naranco'ra juan ei -ziran. Eta an be, paxio...en g... diak egozan gudatokijetaratu ebezan suaga berunbilakaz, areyuak igeska jaftia loftu ixan e...eben.

Efkal-egazkiñak eurentxuba egin ondoren alde ziranian, paxiotafenak agertu ei -ziran. Areik be, baña, efkaldafen exa egazkiñak ikusi ixan ebezenian, ariñari emon eta beriala ufundu ei-ziran. Onako esturaldijetan koldafa ixatia lakorik ez dago egon be. Paxiotafen egazkiñak ori uste e...labe, beintzat.

"El Noticiero Bilbaino"

Gure euzko gudarijen adoria ta trebetasuna go...goyan jarten dau. Burgos guda-oñetan aurkitzen diran efi aldezle trebiak, zer edo a egin barik geldi egoten ez dakijenak e...lira...ta, eurentxubenak egin bako egunik ez ei yake igazten.

Eta atzo be, betiko oiurerai jafafubaz, paxiotafak euren gordelekutzak euki ixan dabezan etxe batzubetara eldu ei-ziran. Etxietara eldu, bafuban aurkitzen ziran paxiotafak andik sutoska bidaldu, ta eurekanduta eukezan garagaf, arto, lusagaf, gari ta idoro ixan ebezan gauza gustijakaz jabetuta euren lekubetara itxuli ei...ziran.

Baranbio aldetik, bafiz, Ceniceero'ko efitaf bi etofi ei ziran.

Euzkadi'ko lendakari argija baxen matia dogun Agife'tar Joseba Andoni be, Artetxega-ziaf guda oñak arakatuten ibili e...an.

Alde arefako gudarijak oi-dalako afera ona egin ei eutsoen euren lendakari mafiari. Eta lendakarija, euzko-guda-oñetan ikusi ebana ikusita, poz-pozik Bilbao'ratu ei-zan.

"Euzko-Langile"

Paxiotafen esturaldijak agertuten daus. Madrid eta Asturias'ek, paxiotafai, uste ixan eben baño burruuste geyago emoten ei-dautse.

Madrid, madritafak, ondo be ondo aldeztuten ei dabe.

Aldezle ofein aftian zenbatuten daus Ortega buruzagijak Madrid'eratu ebazan euzko-gudarijak be.

Eta Asturias'eratu ziranak be, euren abefija dan Euzkadi'ren ospia, go...goyan jafi ixan ei dabe.

Aranda koronela lafituten asita ei-dago. Ondoren on'k bako gudaketa arefatik alde egiteko gogua agertuten asita ei dago Aranda.

Asturias galdutzat esten ei-dau, arek. Eta Asturias'egaz batera euren burubak galdu ez dagijezaneko bildufaz, Asturias berta...bera laga ta iges egiteko gogua egin ei-yako.

Galizi aldetik edatu ixan diran izpafak be, paxiotafentzat itxaropen onik ez ei dabe edatu. Galiz...aldetik Asturias'eratu ixan diran gudarijen ilobija, izpaf areik diñuenez, Asturias ixan ei-da, ba.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixildu bage egin ol...eban Arana-Goiri gure irakasliak.

Esaera au ahuan, goguan eta bijotzian euki bi...f dogu, beti ta beti.

BILBAO'KO izparringijak diñuena

EUZKO-AMAREN GIXARTE-LANAK

KOLDOBIKATXU

Or lar...bost urteko seintxuak euren amakin euki oi-dabezan alkafizketarik ez dozu iñoz entzun, euzko irakufle maitia? Neuk ofetariko alkafizketarik entzun izan dodanean, atsedentsu egin dot negaf. Señaren bijotz garbijan amaren irakatsi zerutafak, lorearen magalean goxeko iñontz onuragiña lez, sartzen dira. Euzko-ama batek bere semetxuagin ixan eban alkafizketatxu bat edestuten noyatzu. Koldobikatxu zan bere bost urtedun semexuaren izena. Efege-egunez bere oski edo zapata -ngurubak bezuza (efegalu) ta jostaluz (juguetes) bete eutsezan bere amak Umia pozaren bitz zuritan zanian, dei egin bere amak eta esan eutsan:

—Koldobikatxu, zuk bai.., zuk jostaluak ugari dozuz, baña alboko Jontxu'k ezer ez dauko. Zer janik bere ez; jostalurik bere ez; bezuzarik bere ez; aitaren maitasun berorik bere ez, aita espetxian dauko be...a...

Koldobikatxu'k, begijak andi - andi egiñaz bere afitasuna agertu eban. Ixilun...na ondoren, esan eutsan, ba, amari:

—Zergaitik espetxeratu dabe, ba, Jontxu'ren aita, amatxo?

—Zergaitik? Euzkadi, geure Abefi bakafa aldeztutiagaitik; euzkotafok orain txuraftian ixan doguzan eskubidiak aldeztutiagaitik; euzkerea, geure ekandu ta oiturak, geure bixi euzkotafa aldeztutiagaitik..

—Eta, amatxo, noz afte euzko dabe espetxian?

—Eztakit, enetxu; onenian luzaruetan. Zeu, Koldobikatxu, ez zindekez kartzelaratuko eskubide euzkotafok aldeztutiafen...?

—Bai eta... gaxotu ta il ezkero..?

—Zerura, maitetxu, zerura, zeure Abefija maitatzen ittiagaitik..

—Baña, espetxian oe gogofean lo egin biafko, ezta?

—Bai, bijotza; baña, norberaren biafkunak betetiagaitik espetxian danak, oe gogofean be bigun ta nasai lo egiten dau. JAUNGOIKOA ETA LAGI-ZARA lora bijok maitatuko dozuz maitasun bedegafez beti zeure bijotz-kutxan, goxotxo. Eta, ez dau...sozu ezer emoten Jontxu zeure adizkidiari?

—Bai, amatxo, jostaluak beretzat..

—Jostaluak emotia ondo da, baña... Jontxu'k lorik egiteko oerik ez dauko; zuk ostera, oe apatza daukazu.

Oldoztun jafi zan Koldobikatxu; bere oe polita iñori emotia aldazgora egiten jakon. Baña lastefera, bere bafuan ekafan bufuko gogofa azkatu ondoren, diñotso:

—Ama, Jontxu'rentzat, ba, neure oea.

Amak, bere bafuko poza jagon ezifik, aftu bere besuetan eta gogotsu lastandu ondoren, jardetsi eutsan:

—Ez, semetxu, ez; oerik ez, zeuk biaf dozu-ta; baña, Ton txakurtxua ez dautsazu emongo...?

Txakurtxua eban Koldobikatxu'k maitien ludijon; amaren eskabidia entzutian, ba, itun ta oldoztun jafi zan eta goitu eziñiko eskarja zalata, buru-makuf bere gelara juan zan.

Ton maitia, iñuan bere kolkorako, ibilten eta ausi egiten dakijan jostalu polita, ene adiskiderik onena... ez, ez.. lafegi da.

Bafiro be, baña, Jontxu'ren aitaren gomutea emon eutsan buruak. Jontxu gaxua... jotz da; ez dauko aitaren maitasun berorik... ez dauko jostalurik... ez dauko njk lako txakurtxurik. Jagi, ba, beste barik, juan amagana ta esan eutsan erabagiz:

—Bai, amatxo, eruan egiyozu Jontxu'ri txakurtxua.

Amaren pozak ganez egin eban; aftu, ba, bere besuetan eta bere begije tako majko goriz sutan imifi eban semexuaren aurpegi kolargea.

Orixe da euzko amak egin dagiken gixafte-lanik onuratsuena; semiaren bijotza txikitatjk JAUNGOIKO ETA LAGI-ZARA maitasunez asetu.

MAITE.

Guda-idazki-agiria

Amayur'tik Loyola'ra

Otarmi begikoairi: Irakufi diat Otxandianoko guda oñetatik zuzendutako ire idazkia. Bizi aizenean ez nauk asafe. Ezkutatu ote intzan bildurtuta nioken. ¡Ez dek ilabete makala igaro, ainbeste oldozten dudan Gernika maitean. ¡Guk baño zori obea izan dezute!

Emen jafaitzen diagu España'ko lufalde auetan. Ilabete ta geiago zermakiagu gure Abefi'tik ufun. Beste abefi bat aldezten. Amavurtafen naia beste bat uan afen. Lendabizi, gure iru erkiak fascistan menpetik azkatu beintzat. Gudarien barnengo abertzaletasunak, ori eskatzen bai zioketan. Guzia ofetarako eskeñia zeukatek. Ne...baitzen duten abefi-miña, Euzkadi aldez Jel aldez.

Bañan, Asturias'era agindu zjaten, eta zer egin? Buruzagiei, une auetan, beaf diegun beafezko menpetasunak gure barneko beste gogo guztiak ixil erazo zizkiguteken; eta gudariok geramazkigun naiak alde batera utzi ta etofi genituan ainbeste kalte egin zizkiguken España onetara.

Emen ikusitako guztiaren befi ematen asiko baniñukek, tokirik ere ez nekek izango. Ainbeste eta ainbeste izan dituk. Esatea on ez dituken asko ere bai.

Gaurkoz beintzat Asturias'ko tontor onetan, euzko ikufiña goi-goian jafia dekala egi-egia duk. Zabal zabalik ibili ere.

Lenengoetan ezagutzen etzitekenak asko itukan. Nungoa ote ukan batek bañan geiagok galdetu ere bai. Gauf guztiak ezagutzen ditekela esango nikek. Begiratzen'ez begiratzen ziotekela ere bai. Gero... begiratuko al ziotek!

Emen zeramazkiaguken aldi onetan euzkera izan duk euzko-gudariok erabili diagun izkuntza bakafa. Onela ikusten ukan, bein bañan geiagotan ai tatu izan diagun "hecho diferencial" lik aundiena. Guri entzutean afituta begiratzen zigutekenak, batzuek rusoak, besteak ingelesak giñala. Mexikarzat aftuak ere ba'dituk. Atzefitartzat entzutea izan duk, bafiz, gure pozik aundiena. Euren abendakoak ez gaitukeala. Ortik etofitako beste ezkertaf gudariak ere, euzkotaf bezela bakafik jokatu ditek. Euzko Ekintza'ko gudari mazalengatik zer esanik etziok. Auek guk bezain garbi Euzkadi aitoftu ditek Komunistak berdin. Guztiak Euzkadi'ren izena, Abefi berezi batena baño ez dekala emengo ostetzari erakutsi zioteguk. Guk nai bezela noski ez ditekela gauz au aftzen. Arpegi ximur xamafarekin entzuten ditekela. Bañan ofek etziguk arduririk ematen jakin arazi ezkero, eta gero gure afazoiari begiratu dezaiotela. Bestela... itz gutxi ta... alek onak.

Buruka garaian nola jokatu diteken gure mutilak esan beafik ez diat.

Izpafingietatik jakitun bai aiz. Euzkotafak, beti lez, euren adoretasuna erakutsi ditek. Tamala, bai, salaketa au, gure Gipuzko aldera ez egitea. Zjur egon au guzia alde aretara egin ba uan gipuzkoafok, gauf gure etxeetan izango gifiuala. Emengo jardunaldiak izugafiak izan bai dituk. Etsaia gogof zigortua.

Euzko odol gofi ta garbiak Asturias'k...o lufak busti dizkik. España'ko erki bat aldeztearen. Baño, ixil nadin. Nere lumak ezin bai dik au eman... eta ik ulertzen nauk.

Gure uskurtzaletasunak, afituta zeuzkatek asturiafak. Atzo bertan, igandea izanik, jaupa bat, gure buruzagi batek berak lagundu zian. Oneitzaz gure jaupari zintzo ta euzke...idazle dan "Otoyope,,'k, zerbait idatzia dik.

Luzeegi ari naukela ezin uka. Bukaizerako gauza bat esan nai nikik. Ik eta besteak jakin dezaten. Gure etofera onetzaz ainbat jardunaldi izan dekala bazekiagu. Euzkadi maite o...etan. Batzuek begi onez ikusi ditek. Ez beste batzuek. Jakin guziok, etofi bafiñan etofi, agindu zigutekelako bakafik izan dekala. Gure agintariaganako menpetasunagatik. Auek agindutako toki guzietara juateko beti gertu gaitukealako. Auengan zeukaguken pentsu osoagaitik. Ofetxeagaitik etofi genituan.

Eskefak gure alde jokatu diteken guziei. Ezin aztu "Atafene,,'kin. Bere anaitasuna erakutsi ziguk onek. Eta lenbaitlen guzien naia bete dedila. Alperikan geiago odol ematerik ez. Euzko odola... Euzkadi alde bakafik.

Gure itzulera ainbat laisterен izan dedila. Euzkadi maitera lenbaitlen. Ofela izango dekalakoan agufi dagiat aurki arte.

IGERA.

Euskeldun gaztedia

Joseba Deuna'ren egunez Bermeo'n

Lengoan adirazi genduan bezela, ufengo barikuan, Joseba Deunaren egunez, jaikun atsegin batzuk izango dira Bermeo uri polítean. "Canarias" paxista gudontziaz bufukan euzko...ateunetan il ziran itxastaf adoretsuen sendi alde.

Sendiei lagunduaz batean, abefi - aldez zintzo eta kementsu jokatuaz jausi ziran euzkotaf aintzagafien izena goralduko dogu.

Egitarau auxe biribildu dabe, jai anto...latzaleak.

Goizeko zortziretan, eresi kalez...kale.

Bederatzi ta erdietan, jaupa eta "Belabita" gudasalaren ikufin onespena.

Amaiketan, txifinguts lastefketa, "Belabita" eritzia.

Amabi ta erdietan, txifindularien elduera eta aufeskua.

Afatsaldeko jruretan, oñezko lastefkariak. Mundaka'ra joan...tofi.

Arifieketa onetan eskui...ftuko daben batzuk, ona: Etxebefia'taf Efamun (lastefketa askotan txapelduna), Beloki'taf Joseba (Gipuzkoa'n, 10.000 metroan txape...dun), Campos'taf Kipiren, "Ufamendi", "Soraluze'ko Txikia" eta abar.

Lauretan, antzoki bafian, ukabilketa bufukaldi ikusgafiak.

Seiretan, Ertzila egurastokian, euzko ...efomeria eta dantzaketa bereziak.

AZALDUAZ

Bide egokija

Euskelduna ez da iñoiz, be, gudazale ixan. Españafak gudaketan ebiltzazanian, be, edestijak diñoskunez, euskelduna, bake garaian lez, eleizak jasoten edo "arquitectura,,'ko gaietan lotzeiotan Espa...ratzen ei-zan. ¡Katedralik asko ezin ...ezan antxiñeko euskeldunak España aldian!

Gauf baña euskeldunok, be, gudean gara. ¿Asabaen edesti garbija zikinduaz ete gabiltzaz gaufko euskeldunok? Ezetz uste dogu. Ez gara oraingoan, be, gu...earen atzetik ibili garanak. Ekaf egin dauskue, gura ez geban afen. Bakezale euren burua egin daroenak ekafi be.

卐 卐 卐

Gure paxiotafak, uskurtza mingafian baño ez pa-da be afturik, baltsakeria edo komunismuaren bilduf ziran. ¿Nundik ete vatorkoen bilduf ori? Langilea, efija euren alde etzalako agertu ixan, geyen bat be.

Irureun aldun baietzka ziran Gil Robles' tafak. ¡Ori gero ikusi biaf! Langilerik asko ba'ziran "Acción Popular" eritxoen Gil Robles'en alderdijan. Zuzen antzera edo jokatzen eben Jimenez Fernandez "iñoxente" leiala bate...be. ¡Lan lo garbija jaun onena! Begiko jakoen langileai bere joerea. Zintzoa, benetako uskurtzalea. Doipuruaren esanen jafaitzalea.

¡Etzan baña danentzat txalogafi! Oben astunegija zan lan ori aberatsentzat. Eta beste barik Jimenez Fernandez'eri anka emon eutsoen.

Etziran baña lo langileak. Lagunik onena at-eginda-zala oartu ziran ...ñoak jatekoa amafutakoan lez bakotxa bere abira aldeten asi zan. ¡Ezeuken an zer egiñik!

¡Jakiña! Leku onian egozan gero irureun aldenak. ¡Or'uan ...kuak iasotziak! ¡Pobre España! Ene, ene bada, baltsakeria gañian! ¿Nola aldendu? ¿Nola eragotzi? Ez jakoen ez, b...oa zan lez, gogoz eta zuzen lan egiterik goratu, guda madarikatu auxe pixtutia baño.

卐 卐 卐

Ona emen Europa danian ezagun dan euskotaf jakintsu baten esana: "Okef bat, okefik andijenagaz (gudea) zuzendu gura ixan dabe paxistak."

Eta Bilbao'n jasoriko gertakixun auxe edestu euskun gañera; irudi polita benetan:

"Txifindi edo bixikleta zafi-zaf baten "gixon bixaf andidun bat yoyan bein. "Txifindija zafa, be, zafa ixan edo, mu"tikotxu batek, ikusiaz bakafik, bafe al "gara edefak egin ebazan.

"Ikusi eban gixonak, eta bere burua txi"kitzat be euki ez eta, ixkilu bategaz egi "tekua egin eban Etzeban baña mutikorik "il, etxera bidian yoyan neskatila bat baño."

Bere anditasuna (okef txikia) jabon egijan, okef andiagua, iñor iltera ausartu zan; eta zer ikusirik ezeukana il, be.

España'ko gudean beforixe ikusi dogu. Gaitz bat osatzeko, beste bat okefagua ekafi, gudea nunbait.

¡Eta, gitxi zan españafak españafakaz konpondu ba'liran Gerri, zer ji...ik e...geban atzefitafoi be ikutu egin dauskue. Euskeldunak, euskereagaz batera burua jasotzea Jaungoikuak nai dau'ako ez gabez il ondiño. ¡Gurariz, gorputz gintzan gauf dan egunez!

卐 卐 卐

Ez da euskelduna guda zalea; bai gudan saftzen danian gogofo.

¡Gordexola, Padura, Mungia, Otxandiano!...

Gauf bertan be euskotafa, euskotaf.

Egoki bai "Gudari"k: Bake oruetan otzanak gintzan; guda orduetan leoiak gara. Antziñakoen bidetaz ibili gura gara; areik legez "euskeldun fededun" gara... Bi'tza bafia nai dogu. Azkatasun bizitza...

Iñor ganako gofoto barik, guk geuria: Euskadi azkatuta.

LAŔEA'TAŔ JON

Bizkai'ko Efukafi-Laguntza'le-Batza

Suarez Deveaux'taf Bingen jauna maipuruko zala Batza oretako artezkari Sota'taf Miren Koldobike andereñoa Txuruka'taf Jon, Arostegi'taf Maren, R. Asua'taf Efamun, Arbaitza'taf Ebarista. Rodriguez Antzola'taf Koldobika, Sota'taf Imanol ta Ibañez Betolatza'taf Markelin jaunak batzafa egin eben Aldundja'n. Gezala'taf Andoni ta Garcia Ogara'taf Joseba Mirena ez ziran i...an, baiña euren ez juateafen zioak azaldu ebezan idazki - bidez.

Il onen 9'gn. egin eben batzafeko agiria irakufi eben eta bai onartu, be.

Irako astean Efuki Etxean izan diran goibe ta emakune...! afi emon eben. Azaldu ebezan bafiok oneitxek doguz:

Laguntza eske bidaririk ez da izan asteon. Efuki etxean gaba egin daben txiroak 893 izan dira; 893'ek egin dabe gosaria etxe ofetan; bazkaldu 11.822'ek; apaldu 8.678'k. Iru urtera eltzen ez diran umeei 212 sopa efaziño emon yakoez.

Astea Efuki Etxean egin daben batzafkideen agiriak eta janari-merke banatzaleen azalpenak irakufi bezan gero.

1.337 efaziño saldu dabez janari-merke Banakaritza'n. Uri saileko Batzordeen ordritz'z laguntza eskatu dabenen eskabideak arakatu ebezan ero.

Mena'ko Efuki-Etxe ikertzaile aste onetan Sota'taf Miren Koldobike izango da ta Janari Merke Banakaritza'ren ardura dun Fernandez'taf Jagoba jauna.

Bilbo'n 1937'gn. epailaren 16'gn.

IZTEGI TXIKIA

Euzkeraz irakurtean oituta eztagozan euzkeldunak itz asko ez ezaunak aurkituko ditue, noski. Eta orain iztegirik zuzentzea gaitza dan ezkero, irakurleok IZTEGI TXIKI au bitafte dala beaf izango dabezan azalpenak izango ditue.

Azalpenok astean bein, ofetarako izentauriko egun baten, egingo dogus.

Beraz, ba, itzen baten ikurpenik edo esangurarik yakin nai ba-dozu, izpafingi txataj auxe bete, ebagi ta itxi bako idazkazaj edo sobre baten, zentimo biko ikufatz edo sello batégaz zuzenbide aonetara bidaldu egizu:

EGUNA
Correo, 17, 2.°
BILBAO

Itz ez ezauna	AGERTU DAN			
	Zenbakija	Ingoskija	...rendea	...efoa

Bidaltzailen izena .....

Etxja .....

ATZERRIKO IZPARRAK

Brihuega'ko paxistak estu eta lari dagoz

Trijueke efepublikaren menpe.-Blum'en jardunak.-Frantze eta Inglaterra'ren alkartasuna bakearen oñaririk sendoena ei da.-Zaurituak Italia'ra.-Eguraldi txaren kalteak.

TRIJUEQUE ERI ALDEZLEEN MENDE; ERI ORETAN ESPE ARTU EBEZANAK

Madrid.—Brihuega'n paxistak dabezan guda-tokiak lari-txamar dagoz Trijueque efi-aldezleen eskuetan dago; efi-aldezle gudari-talde nagusia efi ofetatik iru kilometrora Iparaldean dago.

Trijueque'ko efi-aldezle Gudari-Agintariak izpariarekin jarduna|ditxo bat egin dabe. Larunbateko ekiñaldian jauzi ebezan paxistak efi ofetatik. Efi ofetan egon ziran gudari geienak italiarak ei ziran. Espe aftu ebezan geienak Madrid'era eruan dabez ta guda-oin ondoan zaurituta egozanak geratu ei dira.

Italiafok Italia'n jan gabe egozala ta erbestera uzanakin bat egin ebela adieraso dabe. Etiopia'ra uazala uste izan ei eben baiña. Hernandez ministroak eta Miaja gudalburuak italiafok ez dabezala eraliko epailariak euren espaia emon artean beintzat, adieraso dabe.

ZAURITUAK ITALIA'RA

Londres. — "Manchester Guardian,,'eko ordezkariak diñoanez egunotan "Eluam" itxasontzia eldu da Roma'ra eta España'n zauritutako 540 lagun eroan ditu.

Uste danez Malaga'n zaurituak dira gehik.

Egun gitxi baru zauritutako geyago elduko dira.

ALEMANI'N EZTAKIE EZER

Berlin.—Reich'eko zabalkunde-ordezkariak Radio'ko zuzendariari dei egin datso eta asaferik biziena erakutsi, alemanak españaf gerako bafiak jakiteko, erbesteko izpaf zabaltzalien bila ibilten d'alako.

Efitafak beartuta dagoz aleman radioak bakafik entzutera. Erbestekoa entzuten atrapau ebelako sei-urteko kartzelea emon eutsen bateri.

BLUM'EN JARDUNAK

Paris.—Bazkari baten ondoren Blum jaunak its egin eban.

Inglaterra eta Frantze'ren artean dagoan aftu-emona gogoratu eta alkartasun ori munduko bakea zaintzeko oñaririk gogorena dala esan eban.

EDURAREN KALTEAK

Londres.—Escocia, Holanda, Gales eta Inglaterra'ko Ego-aldean izugarizko edurtea izan da, egundo ezagutu ez dan bezelako edurtea. Bide-txabal eta burni bideetan edufaren sendoa ikaragarria da.

Belfast'en, Ulster'ko Nekazari-Bazkuneko iru etxapen, edufaren astu aren astunez, luf jota gelditu dira. Anabi mila librako ballodun kalteak izan dira.

Londres eta Inglaterra'ko be-aldean atergabeko euria asi da ta Tamesis ibaia, uraren urez, gaiñezka asia da. Aurtengo urtafil eta otsaileko euriteak bezelakorik ez dira ezagutu irurogeitasaspi urteotan.

Labra idazkari nagusiak, oi duan aguf goxoa egin ondoren, auxe esan zigun:

"Andik eta emendik osakai pflatxoa bialdu digutenez, osakaitegi askotan emen jasotako osakairik batere ez dute-ta, url ta erkiko osakaitegietara bialtzen asteko asmoa det.

Oraintxe bertan artzeko gaude ta laister osakaiok geure esku izango ditugulakoan gaude. Osakaiok osasuna indartzekoak dira geienak eta salgai ez daudenak. Eskuratzen ditugunean bereala zabalduko ditugu osakaitegietara.

Osakai guzti ofek latefian bertan egiñak dira—gaiñeratu zigun Labra jaunak—. Ikus of, naiz gudatean nastatu egon, osakaitegiak aufera daragiote lanari, Ofetaz gaiñera, eroso gera eta Gobernuak ere ez du osakai-eske erbestera jo beafik."

GURE BASERRITARREN OITURAK



IDI-DEMA, TA.. BASERRITARAK EZTITAN

Donosti Buru Batzara

"Kizkitza,,'ren (G. B.) idaz-lanak argitaratzeko, Donosti-Buru-Batzaf, asmoa beterik, zabaldu ta dagon arpidearen jafaipena.

Oraindañokoa, laurleko ...	2.972
J. B.	5

Lángara

Efenteri'taf Gorgoni, Mikel Laguntza'ren izenez	50
Goya'taf Efikarta	10
Gonzalez Elorza'taf Kepa.	10
Gazteiztaf batek	10
X. X.	5
X. X.	5
"Mendi Lauta"	5
Elzagife'taf G.	5
"Basafi"	5
Atxukafo'taf Joseba	5
Olano'taf Txomin	5
Saseta saildia	100
Efenderi gudari gaxo bat.	10
Oraindafio	3.202

Euzko-Ikastola-Batza

Euzko-Ikastola-Batza onen landoletara (Belostikale, 1, 1'goa.) agertzea nai geunke aur auen guraoak:

Afuti'taf Imanol eta Afuti'taf Miren Azpeiti'koak.

Baskaran'daf Gotzon eta Baskaran'daf Bingen, Soraluze (Plazentzi)'koak

Muxika'taf Joseba, Etxebafia'taf Pantzeske, Lalana'taf Miren Terese eta Arzak'taf Dore, Donosti'koak.

Alberdi'taf Aurora, Ernani'koa.

Aranburu'taf Josebe, Altza'koa.

Bengoetxea'taf Gaizka, Efenderi'koa.

Goya'taf Joseba, Pasai-zabal'koa.

Olalde'taf Miren Eskarne, Andoain'goa; eta

Sodupe'taf Andoni, Azkoiti'koa.

Iraragorri

Kokotxak xaltxan



Len Donostia'n Euzko-Ekintza'kin zer gertatzen zan aiotortuaz, atzoko "Tierra Vasca,,'n "Egun On" osoa zuzendu dit.

¡Eskefikasko "Otarbe"! ez naiz ofen diña.

Donostia'n zer gertatzen zan befi nitzan, ori dala ta, askotan samin izan nuen, ez bai zan zuk aitatzen dezun "mosaico" ori bide zalako edo, orain bezela saitzen.

Gaur, ni beti lengoan egonik, JEL naiatik txanti bat ere ezertan aldendu gaberik—ta Jaunak nai dezala ez aldentzia—, lengo zuen gertaerak lengo, gaur beste erara zabiltzatela, ezin ukatu.

¿Aldakuntza au zuen talde ori gaur buru dalako dala? zorionak.

An Donostia'n, emen orain bezela zuek noski, Ekintzaz jabetu, ta orraingo eran jo bazen duen, orain zuetzaz idatzitako itzak berak, idatziko nituala zlur egon "Otarbe". ¿Gero zuen aurka JEL alderdiko gelenak egongo dirala?

Ori ikustean edo, gertatzean, esateko obea da, oraingo bidean jafaitzen ba'dezue befiz... ordun itz egingo degu, Jaunak, osasuna ematen baidigu beintzat. Orlakorik ez gertatzia naio.

Gero zer gertatuko dan, esaerak zafak diona diogun guk ere, "Bere Abefian iñor ez bait da igarle".

"Askori gertatzen zaiote gauza au diozu. Uzten dute, eguzkia munduan zear ibiltzen dala bueltak ematen, eta mundua izan eguzkian zear, bueltak ematen dituana.."

Ortan nago ni ere zlur ortan.

¡Bota bosteko ori "Otarbe"!

卐 卐 卐

Atzo Koipe'k zuen jarioa! Atzoko mokolua, txakoliñena zala esango nuke. Bilbao'runtz bota zituen beintzat bere gorakoak.

¡Mutilak, len astakirtena bazan, lau bider astakirten terdi ta orain!

Ori astakirtena ta berak esaten ditunak xinixtu ta bizi diranak, aundigoak oraindik.

Asto ta mandoak, itz ulerkorak ba'lira eta txalo jotzen balekiteke ¡a zer nolako pefa otsak Koipe'n omenez!

Abere oik ortan ikasi ez duelarik, ba' dira olen egin beaf ori ondo betetzen dutenak. ¡Aidekoak izan! ¡"Todos efibatekos"!

卐 卐 卐

Egutegi baten ofian, atzo irakurfia

Gorostiza

Pablito

"Tolero que el canalla no se dd cuenta de que lo es. Pero ¿que se las eche de honrado?"

¿Au Koipe'entzat idatzi ote dute? ¿Ezetz? ¡Nik baietz esango nuke ba!

Beretzat idatzia ez bada, ¡bai egoki datorkiola, egokiago ezin!

Au idatzi duanak, Koipe ezagutzen duela, apostu egingo nuke nik beintzat.

卐 卐 卐

¡Makina bat bider esandakoa, "Kopetifun", zuk atzo "Tierra Vasca,,'n diozuna! Orlakoxiak dira "Carton piedra,,'ko "catolico' olek.

¡Ezkefak Euzkadi'ko xinixmenak, oik baño oñafi sendo ta egizko dituala, bestela, pikota juan zan guzia.

Ori dala ta dabiltza, ez buru, ta ez belafi, nora jo, ta nun jo ez dakitela. Xinixmena aufera irtentzeko olen begira ba dadago ¡etzlok leku txafean! ¡Españafak izan, ta abena jakiña, lengo lepotik burua eosoogofak batdira!

Or konpon Mari Anton. Guk aufera txalupari beti.

卐 卐 卐

Faxixta aftetik igasi, afantz itxas ontzi bat aftu dala diote. ¿Ta itxas guda ontziak noiz datoz?

Afantzakoak etortzea ongi da, baño abek afantzan diranian zaintzeko, ¿zer txinguriak befiz ere?

Betoz betoz ta len bailen itxas guda ontziak onera, baño emengo itxas gizonentzat izatekotan ¿e?

卐 卐 卐

Badatozela ta badatozela, baña gure euzko-gudariak, Asturias'tik ez datoz. Ez etortzeko ¿ofen ondo aftuak izan ote dira?

Ba'liteke baño, "Juana Bixenta,,'n bertsoak diona:

...naiago ditut ango bi talo
ta ez emengo mila efegalo.

¿Ardiak beti mendira jotzen duela? ¡Ondo egia da bai afanoak ez badu!

Oraingo ontan batez ere!

Onera bidean jartzeko eguna ¡noiz ote da! ATARENE.

"Ufetxindof bati"

Txori bigun, ufetxindof edef!
Ixildu zure abesti
Eztitsubok,
Eta negaf begije
Euzko-oyanak,
Oñazia ixilaz
Besafkatubaz...
Axiaren negaf-Otsituna.
Guda-izkilu daunbadea
Ixan bediz
Entzungo doguzan
¡Abesti bakafak...!
Baña ez; jafaitu,
Ekin zure abesti oti,
Nasatu ufezko mokuoi!
Ez itxi atsekabian
Oyan, mendi ta aranak.
Nekatzen zaranian

Areso

Neuk abestuko dot
Zeure ordez;
Bijok ixango gara
Bijotz lagun betikuak!

GOXABAFAN.

Ejofio'tik.

Amayur'ko beriak

Badakigu, gaufko egunian, ba'djrala Euzko-gudaroste ortan gure utzak bete naj dutenak. ¡Gauz afigafija! ¡Latzagabekeriya!

Lotzagab'keriya? Nola ez? uzten dutenean emengua amaitu dala. Ta ilabete bat geyagoko baimena gure zaildea osatu bitafiean. Ta gero? Gure zaildu maitea, "Amayur" aundiya, irten beaf duanian osagilearengana.

Ofelako gudarik ez degu nai. Naj degu, gure gane datofena izan dedila, erderaz ezaten diguten bezela. "Del Tercio Vasco" ba, ez da, alperik txuri euzko-odola Asturias'en gere gure saildea, edo batalloiko izenean Gernika'ko kaletan ibiltzea, ango mirabe lirain diran begirapen begira.

Euzkotafa egitan danak, bere odola nun neu prest, beardu bere gogoa azaltzeko.

Egi bereziak, naiz, zenbaitek min artu.

BIZARGIN.

Las Caldas, 15.

Zubieta

San Mamés'en IGANDEAN

"Amayur'ko gazteak Asturias aldean"

EGUNA'ren irakufle biotzekuok, aguf: Gure Asturias'ko ibilaldien beriak amotu zundiakin irakurtzen dirala ikusita, ta be e semeak gure saildian dauzkaten gurasu Jaungoikozaleen kezkatxoak kentzeafen le o batzuk idaztera igitu nauk.

Euzkadi'ko basefitaf gaztediak sinisme a galdu edo zeuken onoimen ori erdi ilda zeukatela ziotenak asko ziraden, eleiz-gizonak ere bai.

Beste guda leku batzuetan gure gudari basefitafak esames ori neuretzat gezurtatu ba'dute, emen argi ta garbi egipena in ludi guztiaren aufean gure mutil jatofak euren Jaungoikozaletasuna ta afisku unetan apaizak euren inguruan egoteak damotsen adoretasun ta bafuko nasaitasu o batzuk idaztera igitu dau euren etzau tokietan oeratu ziran. Gaue ko amafak dira ta gu dasaust. "Goixeko ordubatetan guztiok bufukarako gertatuta egon beaf degu."

Gudariak etxe askotan sakabanatuak daude. Bufukaldi gogofak itxaroten dauskue. Atsedena beaf dute gudariak ta "ixi ik" saildiko jauparlak jaupa emotea eragiten dogu. Gaueko amabiak dira... Ja pa emoteko gauzak atontzen ari naiz ta gudariak bañan bañan gure gelara. Azti gutxi daukagu ta bi jauparik batera toki banatan jaupa asten dogu. Jaupa aftu det ta gudariak auferatzen asi dira. Une soragafi ta pozgafia neuretzat ta neurekin Abefiarentzat. Mutilak lo egiteafen ixilik jaupa emoten asi—eurai ez gaztigatu—ta jakin dutenak ez bakafik jaupa entzun, befogeitaseik jaunartzen dute. Gosaldu ta gertatu dira bufukaldirako. Euzkadi'tik irten aufegunean guztiak autortu ta jaun rtuta egon afen, itz b desoint er bi itza guztiko obenen damua ta bufukaldi'ko neke ta estuasunak Jainkoan norbera Abefi maitearen alde eskein dalazara iaz. Azkespena emon beaf diet ta dan danak belaunikatzen dira. Nik azkespe a emon bitaftean euren damu-egintza dio te. Asturias'ko gudari batzuak aufean da oz ta motilen sinismenakin afituta geldltu dira.

Gure gudariak pozik ta "Gora Euzka li azkatuta" esan ondoren gauaren itzaltasun aretan biñan biñan ixil ixilik efe gabe arerio ankefaren aufera dijoazte.

OTOYOPE

(Jafaitzeko.)

LAGUN ARTEAN

Guda idazki agiriak

Lagun min ofi, aguf:

Agindu bezela gure befi emanaz netorkik gaur ere. Gudal-etxean gaituk oraindio, bañan laister mendiratuko geran otsa zeok. Ofela baiitz nere ufengoa guda-oñetik idatzitakoa izango ukek. Ia ofela ire egafia asetzen detan.

"Belabita" jagundiak eraldutako jaitzaz jardungo nintzala agindu nian nere azken idazkian eta ortaraxe niak.

Euzko-Jaurlaritza'ren "bou"-etan dabiltzan mariñel'ei zer gerta zitzaien jakitun aiz noski. Gurenda afek bere gafatz eldea ere izan zian, guda guztia duan bezela, mariñel batzuk betirako gugandik aldendu ituan. Oen sendi asko beafean arkitzen dituk eta "Belabita,,'k mutil jatofei auxe buruzatu zaiotek: sendi edo famili oieri lagundu. ¿Nola? Ukabilketa edo boxeo jajaldi bikain bat eralduaz. Jai ori "Nuevo Teatro-Cine" antzoki edefean izango dek. Bertan parte aftuk ditek Euzkadi'ko ukabilkari onenetakoak, Pinedo, Bueno, Del Rio eta abar beste askoren aftean. Baita "Itxarkundia" Saildi'ko ukabilkari yayo batzuk ere euren sayoa egin bear ditek.

Jaiak goizetik asiera izango dutela esan beafik etzeok, Goiz-eresi, meza, ikufin-onespen, laisterketak eta abar, ugari izango dituk; baita afatsaldean euzko-fomeri edefa ere. Ikusten dek zer nolako jai edefak diran?

Nola-nai ere biyar izpafingi ontan bertan egitarau oso-osoa agertuko diat. Ori ofela dalarik eta beste zer egifik ez baldin ba'dek beintzat Joseba Deun egunez gure Bermeo ontan itxaroko aut, ia alkafegaz egun bikain bat igarotzen degun aspaldiko partez. ¿Zer deritzaik?

Beste gai batetzaz ere idatzi nai diat gaur. "Bafensoro,,'ren "Uztaro" euzkel-eleberia erosi ote dek? Egin ez ba' dek, erosi eta irakufi ezak. Ofela bereala ikasko dek euzkeraz irakurtzen eta nolako euzkera. Benetan gozo-gozoa. Esku aftian zeukat nik, bañan mendiyan aztiro-aztiro irakufi nai diat an izaten bai diagu naiko azti irakurtzeko. Irakufitakoan ene iritzi txiroa egunkari ontan azalduko diat.

Gaurkoz besterik ez lagun, ia ufengo idazkia, egizko guda-idazkia egiten diaten.

Beti bezela, aguf, Jel eta Euzko-Mirkal aldez.

ANDONI.

"Itxarkundia,,'tik.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Baserietara jaki billa iñor juan ez daiten agindu bat emongo da.-Eibar eta Bergara'ko larogeta bederatzi ereketeren aurkako epai-agerketa amaitu da eta salatariaren (piskalaren) eskuetan dago onek ikasi dagian.

Lendakaritza

IZPARIK EZ

Atzo eguerdian, Lendakaritza'ra juan ziñanean Basaldua jaunak ezeukan izparik.

Gobernua amaiketan batu zan asteroko batzarean eta gaberarte ba itxartuta jarraituko ebala esan euskuen.

Efi-zaintza

ISUNAK (MULTAK)

Fernandez Zabaleta jaunak igaro dan amabost egunetan Efi-Zaiketak ipini ditun multen kontua emon euskun.

Onelaxe dira: 25 laurlekoko (pesetako) saspi, 50'ko bi, 100'eko amasei, 150'ko bat, 200'eko lau, 250'ko lau, 500'eko iru, 1.000'eko iru, 1.500'eko bat eta 3.000'eko iru.

Isun guztiok era batera edo bestera legearen edo gobernuaren aurka agertu edo jokatu dalako.

Zuzentza ta Gogolantzea

ARETXALDE JAUNAGAZ

Leizaola jauna batzarera juana zan gu Zuzentza'ko etxera eldu giñanean.

Aretxalde jaunak esan euskun:

"Ikuslari bat bialdu dot Balmaseda'ra ango kartzelan egin leikezan ba fiztapenak ikasi ta agertu dagiztazan, presorik ara bialtzea gertauko ba'litz be".

LAROGETABEDERATZI EPAIPETU

Zuzentza'ko atetan beste jaun bat bilatu gendun.

Gure jakin miña asetu nayean galdezka jafi giñan ta baita zerbait atera ere.

Gipuzkoa'n altzau ziran ereketien aurka zabaldu dan agerketa amaitu dala jakin gendun. Epai-agerketa oretan larogetabederatzi erekete sartzen dira eta Eibar eta Bergara'koak dira.

Agerketa ori piskalaren eskuetara bialdu da orain, biaf dan lez aztertu ta ikasi ondoren bere salakuntza egin dagian.

Efi-lanak

Uriarte oletako langilcen asmoa

Efi-lanetako idazkari nagusi Urondo jaunak oaf bat eskuratu zigun atzo. Ona emen oaf ori:

Uriarte oletako langileak, ila ontako amaikagarenez, bat-batez egindako batzarean, gintza au al dan geien zabaltzeko bakoitzak bere asmoak azaltzeko egindako batzarean, gintza au gudarekikoa danez eta ostontzeko langile guzientzat jafaibide izan dedin, auxe agertu nai degu:

Gaixo-aldietan lan-saria osorik jasotzeko Zaingo ontako erabakiak atzeratuta gaukatenez, berdin ezbeafen bat danean eunetiko ogeitabost jasotzeko ere, orobat astean lau ordu opofetakoa deguna, egunean, lan-sari gabe, ordu-bete bat geiagoz lan egiteko gertu gaude. Geure zeregiñetarako ere beaf degu zerbait asti-ta, larunbata eta igandetan izan ezik ori. Orixe jakin-erazo nai diogu, lanbide jafailitzat ezafi nai badu ere. Bilbao'n, 1937'gnko. epaila'ko 12'gnez. Geure lagunen ordez, oletako delegauak izenpetuta. S. T. V.'koa. Pardo'taf Kelestin. U. G. T.'koa. Gomez'daf Rufino.

Osasun-zaingoa

Ordu-izentatzea

Beste arloetarako ere astiá izan dezaten eta Zaingo ontako lanaren neketsu ta aztuna apuf bat arintzeko, Osasun-Zaingoko Zuzendaritza Nagusi ofek, lanerako orduak izentatzen ditu. Goizean, amaiketatik amabiak arte. Afatsaldean, seiretatik zaspirak arte. Iñork ezer beaf bada Zaingo ontan, orduok zuzen zaindu bearko ditu. Ostontzeko orduetan, eskuartekoa gafantzi-gafantzitsua ez ba'da, ez diogu iñori jaramonik egingo.

Zaingo ontara erdu bear dutenak, beste Zaingo'etara joan oi diranak bezelatzu, zer gaitaz jardun nai duan aurez idazkiz jakin-erazotzea ezartzea nai genduke ta, ez saf askotan bezela, asti galtzen ibili. Zaingo'etako atean, zein gairi zein ordu dagokion adieraziaz, laukitxo bat jartzea ere egoki litzake.

Nekazaritza

Osalari bat gutxiago

Abanto ta Zierbana'ko Udalak bialdutako Las Carerras bafutiko osalari Fernandez Aranda'taf Imanol jaunaren aurkako idazki-agiria aztertu ondoren, ta Zaingo ontako auzi-aztertzaile ta epai-emailearen miritziz, aitatutako osalariari lengo egin bearetarako eskubidea kentzea erabaki det, 1936'gnko. garila'ko ogeitabatgafeneko aginduko bigafena ta ufila'ko aginduko irugafen atala beteaz.

Bilbao'n, 1937'gnko. epaila'ko 16'gn

Osasun-Zaingo'ko Arduradun, Espinosa'taf Alperda.

Isuna edo multa

Abereak iltzeari buruz Zaingo onek emandako aginduak bete ez dituala ko, Aramayona'ko bati isun edo mul ta ezafi diote. Edozein abere-mueta altzeari buruz Zaingo onek edatu dituan aginduak betetzen ez dituana, efuki gabe zigoftua izango da eta ikasbidetzat izan dedin, oraingo ontan, naiz ta aundia izan ez, isuna jafi diogu, baiña auferantzean bear beza eta gogof zigoftatzeko asmotan. Abereak azitzeko ta eriko osasunerako kaltegafi diranak iltzea, zigof, edefa merezi duan egitadea izango da gaurtaudi'k.

Agiriak eta lanak

Zenbat abere, zein mueta ta ostontzeko guztia beaf bezela eskuartean erabiltzeko, Zaingo ontakoak gogof diafdute lanean.

Ikefak

Abereentzako janari ta azia jasotzeko baimenak jasotzera, onexek etofi ziran atzo Zaingo ontara: Gueñes eta Aranguren'go endoreak, Aramayona, Erandio, Sondika ta Luxua'ko Nekazari-Bazkunekoak, Yufe, Murelaga, Ibafangelua, Zolo, Ispaster, Bermeo Zafa, Afieta, Balmaseda, Getxo, Otxandiano, Dima, Laudio, Eibar, Ajangiz, Busturia, Apatamonasterio, Morga, Plenzia, Etxano, Tabira ta Arzentales'eko Udalak

Patata-azia

Patata-azia jasotzera, gauf, Zaingo ontara etofi bear diranak onako izki edo letrakin asten diran abizendunak dira: P. P., R. ta S.

Gizarte-Laguntza

Izparik ez

Atzo ez gendun Zaingo ontako arduradun jaunarekin itz egiterik ez gendun lortu. Batzaf Nagusira joana yan.

Ez gendun izparik laso.

Emakuntzen beti bakafik eman ziguten

"Compañia Iberica.,'ko chauffeur Fuente'ek (Erandio), 10 laufleko; Ufutia'taf Paul'ek (Afasate), 28; Karabiñeru - komandanteak (Gipuzkoa -Bizkaya), 2.271,20; eurok, erefuiiatuen Egunerako, 500; Zeniga'taf Jaime'ek, 50; Afieta'ko Udalak, 161,50; Lopez'daf Gumersinda'k, 10.

Danetara: 3.03z,70 laufleko.

Salerosketa ta Orniketa Zaingo'an

Ornketako Zuzendari Nagusiak diona

Ornketako Zuzendari Nagusi Gomez Beltran jaunak auxe esan zigun atzo:

Biaf eta beste egun batzuetan ere izango da ogia. Ongile-batzai jakin erazotzeko oaf auxe egiteko esan zigun:

Frantze'ko paxistaf aurkako Lateri -arteko Batzorde Laguntzaileak emandako janari pila bat zeukala ta guzti ori banatzeko, ongile-batzok eman dezatela bakoitzak zenbati jaten ematen dioten.

Larunbaterako jakin-erazo bearko dute.

Beste Zerbait ere jakin-erazo nai zuala esan zigun Beltran jaunak. Idazkaritza Nagusiak erabakitakoaren bidez eta Zaingo'aren oniritziz, basetxetara janari-eske joatea ziaro galerazota dagola, ta ez etortzeko alpefik baimen bila, ez zaiola iñori emango-ta.

AROTZ BAT TXARA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXARAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTARA.

ALTZA'KO EUZKO GUDARIEN TXABOLATIK

Uda befiyan, negu zafera
aurten ikusten dogu
mendi guziak zuriturikan
elur mardulak bete ditu.

Jose deunaren egun doneak
esaera dan bezela
aufen ala ondoren egun ilunak
ikusitzen asi gera.

Areriyorik gogoztxo enbat
orixen da guretzat
bañan alare gu gudariak
gogof ta sendo gabiltza

Befiz ere bai laguntzen badu
Jaunak orain afte bezela
gudaren jabe izango gera
ez dudarik jafi ofetan.

Kalamendi'tik begira gaude Donosti aldera. Zeñen edefki ikusten diran Igeldo, Jaizkibel, Ulia, Ernio ta Oyartzun aldeko mendi tontof guziak.

Eliffez txuri txuri daude, naiz reketia ren menpian egon. Zer nolako garbi ta bikañak arkitzen dira guri begira!

Noiz edo noiz iritxiko ote geran gure ikufin garbia beren tontofetan zabaltzeko. Une artan bertan gure abesti edefaren otsa entzuteko. Bai laistef gera Gipuzkoa'ko mendi maiteak! Guk gudariak ezin zaitugu aztu.

Ziur gaude denbora gutxi bafu, orain sei ilebete utzitako zure semeak laistef ikusiko dituzula.

TXAPEL GOÑIAK

Zortzi bat egun izango dira agertu dirala gure aufeko mendietara. Napafak dira rekete txapel gofi oiek

Goizian goiz asten dira, ifintzika ta gero "pakun", "pakun" ixiltzen ez dira.

Bañan atzo saldu ziran iru egazkin txuri beltzak gure mendivaren inguruan zebiltzan ta onetan "rekete" guziak jafi ziran beren zaku gañetan, eta an zebiltzan ojuka ta deadarka! Nunbait uste zuten gu zaku tartian kizkuftuta egongo giñala; bañan... zer gertatu zan? Jafi genuen gure ametraladora edo izkilupizkofa berdin berdin··· eta antziak! ¡Ta... ta... ta!... bai aguro asko, sartu ziran beren zulora.

¡Orain zeok aizkora! Rekete bat zakuz unuzkaldera irori. Nunbait "txirt" egin zion gure izkiluak, eta ango iskanbilak, gisarajo afek laguntza nai, eta iñor ateratzen ez beren zulotatik. Uste zuten italianuak bakafik zekitela zuzen tiratzen, ba. Altza'ko gudariak izaki, beren egazkiñen bildufik gabe.

AIZKORA JOKUA

Aufeko egun batean jokatu a Kalamendi tontofian, aizkora apustu bikaña. Gure Saturnino, azkoitiaf Pedro'ren aurka. Jun giñan ikustera ta asi ziran jo ta jo. Gure Saturnino onek abazi zuan, bi eguf zati ikusgafiak ebaki zituan.

Iru minutu ta befogei segundotan. Eta Pedro'k, lau minutu.

Ura gure mutilen, gasoia! Bañan zerbait jakin naiean, inguratu nitzan, eta galdetu nioten, zer jokatu dezute? Eta erantzun ziraten, bi arkume. Noiz jateko? Ba... gauf afatsian, eta ortan aukeratu ninduten beren artera, apari on bat egitera.

Bai egin ere, gure Oriyo lere arkumeari begira, an ari zan saltza berezia antolatzen. Gure Saturnino'ri galdetu nion, jaizak!, ez al-tzaik iuditzen Bilbao'ko jatetxerik onenian ere ez tela ofelako kaxuelkarik jariko? ¡¡¡a judas!! Ezta... mundu guzian ere!

Iñork kaxuelkarik
jan nai baldin badu
iyo Kalamendi'ra
an bilatuko du.

KUTAÑTXO

Txaide'tafak eta baserifafak

Lengo larunbateko EGUNA izparingi egunerokoan irakufi det i azlan bat, "Bebeko,,'k idatzita. Idatz burutzat goyen dagon ori bera zeukan, eta berak dionez, nik agertu nuen idazti bati erantzunaz.

Bi eta iru aldiz irakufi det "Bebeko" zure idazlana eta bertan diozunagatik ulertzen det, edo ez dezula ondo irakufi nik idatzi nuena edo ta ondo irakufi badezu ez dezula ulertunik bertan ezafi nuena.

Nere lantxoan ez nuen asmorik izan eta ez agertu ere txaide-tafen aurka jafi biaf gendunik; baizik nik agertua nuena zan, txaide-tafak ezpañetan erabiltzen zuten gureganako "maitetasuna" zer eratakoa dan; emendik zuk diozun, "Diñoan guztija txaide-tafen aurka diño,,'ra alde aundia dago. Diozu baserian bañan txaidetafetan txiro geigo dagoela, baserifaren txindia geyago dala txindi-etxietan.

Askotan esan izandu det, eta geroz zufago nagó, nekazariok zuzendu nai gaituzten txaide-taf geyenak, ezagutzen gaituztela "bitxabal" edo "kamiño,,'tik ikusita; eta zu ere, "Bebeko" baliteke oyetakoren bat izatea; askotan esan izan dezute gabeko intzak ere, asko ematen dio nekazariari.

Atoz une batean nerekin batera baserí bafura ikusi dezagun nola bizi dan sendi ori; ¿badakizu nola izaten dan txindi-etxetara eramateko txindia? Emen ikusiko dituzu sendiko denak buru-belafi lanean goizetik asita afeta guztiarekin; eguzkia bada galda ederean; euria bada dena bustita; izotz eta elur asko bizkafean aftuz berarekin batera bere sendikoak dituala egun oro eta guztietan.

Astean bein, "azoka" edo igandean efira juanda, "tripakada" bat edo beste afapatzen badu "bien". Onela ibilita izaten dute bat edo batek txindi etxietara eramaten duten xindi apufa.

Onela ibili eta ala ere sendiarentzat biafeko diraden ainbat gauzatara irixten ez danik ezagutzen dezu? Nik bai, eta asko, txindiarekin txindi etxietara juaten diradenak bañan askotzaz geyago.

Txaidetafak befiz, goizean zortziretako lanera juateko zazpiterdietan, oetik "erori" egin biaf izaten dute; begiak ondo zabaldu gabe oraindik eta gosaldu; eta "geroko" ogi koxkor goxoaren erdian "xafada" bat apain sakelan dutela lanera.

Eguerdi ondoan adeita etxietara geyenak, eta apal ostean jakiña; igandetortzean antzerki areto apain eta egoki batera beren sendi guztiarekin; edo zezenetara; edo berebil apaña aftu eta "a dar un paseo". Oyek, begi eta soñak poztutzeko gauza onak diradena badakite baserifafak ere, askori entzun diotelako, bañan onela ez dago txindirik izaterik.

Beste leku batean diozu "lurgofijak ez daula ezer ematen"; bada nere irizziz lurgofija izateko lana egin biaf da; baldin gofitu gabe utzitzen ba'degu, laxter lafa eta gasia sortutzen da eta onen emaitzak txindi gutxi ematen du.

Diozu baserifafen kaltez es duela iñork ezer egin biar, eta ezta txaidetafen kaltez ere. Asmo au betea izandu balitza orain arte ez nuen idatziko, arako "untzaren" maitetasun ura, baizik beste era batera, betor bada alkafenganako maitetasun ori; eman nekazariari berari dagokion gizarte arazo denetan lekua bere ordezkariak izan ditzan, "txaidean" bere ontasunak zaitzeko.

Au egiten badezute txaidetafok, nekazariak egiazko maitetasunarekin maiteko zaituzte; bañan nekazariari dagikion malan jafzeko lekurik ez badiozute uzten, onek bere Alkartasunaren bidez, bere alderdi eta ontasunak, zaitu biafko ditu.

¿Au izango ote da txaidetafen aurka juatea?

EZTANDA.

Bermeo'n "itxafkundiatafak"

Zoritxaf ta negaf mallera jausten dan geldiari laguntza ta poztasuna eskiñi biafian aurkitzen gara. Eguneko ordu gustiyetan beti dago baten bat atsekabe unjan. Gauf, aldi onetan, beste itxas bastef uritxuetako sendi samindu antzera gure Bermeo majtea ere sotin anpuluka dago. Ameak, aitak, arfeba-anai ta emastegayak poztu eziñian dagoz. Efukafiyak eurok.

Gastediya, abefi etorkixuna, betiko ondatu zaituze kantauri magal sakonian. Gixaseme gaizkin ta txafenak eruan zaitube betiko jauregira. Ludi onetan geyago ikusten gaitz ixango da. Agufi donokirafte. Jauna efuki zadi eurokaz. Emon egitzazu betiko atseden donia.

Kantauri euzko itxas-altsoan "Canarias" españaf itxas-lapuf madarikatuagaz bufukan euren bixitzia itxi dabien itxas-gudari kementsuaren sendi alde zeozertxu batzeko asmoz eta Itxafkundia gudaloro ko "Belabita" gudari-taldjak eralduta datofen barikuz, 19'garenian, Deun Joseba egunian ospatuko dabien jai-egitaraba auxe dozu irakufle.

Goxeko 8'retan: Goiz-eresiya txaidziaf.

Goxeko 9 ta erdiyetan: Jaupa nagosiya eta "Belabita" taldiaren ikufin -onespena.

Goxeko 11'tan: "Belabita" txifindu lasterketa.

12 ta erdiyetan: Txifindulariyen etorera. Ondoren aufeskua.

Afatsaldeko 3'retan: Befmeo-Mundaka Befmeo cross-country deritxon arinketa. Bufuketa onetan ixango dira: Andoainen joko askotan txapeldun ixan zan Etxebafia'taf Efamon; Gipuzkoa'n 10.000 neurkiñen garaile ixan zan Beloki'taf Joseba; Zestona'ko Campos'taf Zipri, "Ufemendi", Zoraluze'ko txikiya eta abaf.

Afatsaldeko 4'retan: Bermeo'ko Nuevo Teatro Cine deritxon antzokiyan ukubilketa bufukaldiya Euzkadi'ko uku bilkari entzutetzuenakaz.

Pixo endikoak: "Maravilla negra" -Pernales'en aurka.

Welters pixokuak: Oskarbide, "Toro de Bergara" ren aufka.

Pixo astunak: "Azkoitia'ko Kanpolo", "Tarzan Basko'ren" aufka.

Pixo afiñak: Arenaza bermeotafa, Zamaloa'ren aufka.

Euzkera gure ele bakafa

Zaindu dezagun

Zenbait euzkotaf ergel, buru exkaxako gizon"andre ditugu Euzkadi'n. Beren buruak abeftzale ta euzkaltzale dauzkate ta dabiltzan lekuguzietan erdera mafa mafa dariayotela jarduntzen dute leku guzietan. Auxe da lotsagafikeri aundiena. Euzkeraz jakin, beren buruak abeftzale direla aitortu, ta paxista antzera erderaz jardun, ta berari atzefitafen eliari maitasuna agertu. ¡Lotsagafi alenak!

Ogeigafen gizaldian onelako euzkotaf otrak badira'la entzuteaz, nor ez da samindu ko, irakufle maiteok?

Badira beste motako abeftzaleak, beren buru afo putz egiten dituztenak. Euzkera erabili, baño maitasun gutxi azaltzen dutenak. Berak etxian daudela akatz asko bilatzen dutenak aitzaki aundiak ta izugafiak mingañian euzkeraren aldez, baño eginkizun gutxi azaltzen dutenak. Emen ari zaigu gure izpafingi EGUNA jaguntza eske, ta abeftzale guziok ez ote-diogu geure laguntza eskeñiko? ¿Ofen biotz gogorekuak izango ote gera abeftzale anaiak? Orain afte ez genduan didar egiten, eguneroko izpafingi euzkerazkoa biaf gendunela? Ementxe degu EGUNA, izen egokiaz gure txaidetan egunero azaltzen zaigu. Beras abeftzalea zara, EGUNA ontara arpidetu ta laguntza eskeñi yaiozu. Izpafingi erderazkuen gañetik EGUNA azaldu biaf degu; au gure gain dago, abeftzalien gain.

EGUNA au aftzen ez duanak ezin izan abeftzalea. Euzkera maite ez duanak berak abeftzalea dala aitortu afen, ezin izan iñondik abeftzale. Jafaituko det.

ITUÑALDE

Ibafondo, Del Rio, Arambilet, Pinedo eta beste euzko-ukubilkari ospatsu gastiak ere jokatuko dabe.

Afatsaldeko 6'retan: Euzko-efomeriyaren asiera emongo yako Eftzila'ren egurastokiyan. Bajta euzko-useñesko jolas batzuk ere egongo dira.

¡Befmeotafa! ¡Gudariya! ¡Erkaldafa! benetako azkaltzalia. ¡Eup! Euzko -Antzoki Bafira, gastetasuna, indafa, kirol ta anaitasuna ikustera. Eta batera lagundu gauf negafez dagozan sendi atsekabetuari euren bixitza latza zerbait eruakofagua ixan dagiyen.

UÑKIDI.

ANDIK ETA EMENDIK

Palestina'n naste geyago.-Nueva Zelanda armaz beteten.-Artiko'ko aberastasunak. Roosevelt'en asmoak.-Beste izpafak.

ARTIKO'KO ABERASTASUNAK

Moscu.—"Krasin" izortz apuftzalea eta beste lau ontzik. Vladivostock'etik Artiko'rako urtengo dabe, lufalde areitako miñez aberastasuna atareko

PALESTINA'N NASTE GEYAGO

Londres.—Palestina'n geroago naste ta zarata geyago dago.

Ori dala ta sir Arthur Wandhope, Palestina'ko gobernadoreak arifeketa bizian urtengo dau gauf edo biyaf Jerusalen'erako.

NUEVA ZELANDA ARMAZ BETETEN

Londres.—Nueva Zelanda'tik diñoenez efi aretako gobernuak gudarosteak geitu eta ugaritzea erabagi dau, efiaren zaintzarako.

HINDENBURG'EN IBILERAK

Francfort.—Atzo gabaz urten zan emetik Hindenburg zepeliña, Zepelin etxeak asi dituzan ibilerei jafaituaz. Lenengo osterean befogetamaf lagun joan dira.

Eroan dabez kargea egun kilo ingurukoa izan da. Geyenak osakayak eta pelikulak dira.

Juan diranen artean 20 tximiño eruan ditu euren kayoletak sartuta. Tximiñuok "Hagenbeck" abere etxeak Rio Janeiro'ra bialtzen ditunak dira.

ORAIN ORI?

Bruselas.—Degrelle'ren aurka idatzi eban artikulu bategaitik ogetabost mila pesetako multea ipiñi dautse "Soir" izpafingiari.

ROOSEVELT'EN ASMOAK

Washington.—"New York Times,,'ek diñoanez Roosevelt lendakaria gertu dago efi guztiei batzaf batera dei egiteko desarme eta esku gayetzaz jarduteko.

INDITAÑEN GARAITZEA

Londres.—Inditafak lortu daben garaitza andi eta zaratatsuaren ondoren zer-esan ugari sortu da efi onetan.

Eztakie orain inditafak ingelesakin lagun egingo ete daben lan batzuetan.

ESPAÑA'KO IZPARRAK

Alemanak, italiaŕak eta moruak auŕerarik e:

"V.rgen de la Cabeza"ko eleiza apurtuta.-Madrid'en urte onetan 98 etxe apurtu ditue paxistak.-Eurotatik lau ikastolak dira; zortzi eleiza, bederatzi eŕuki-etxe, lau gaizotegi eta museo bi.-Guadalajara'ko guda-oñetan.-Txekoeslobakitaŕak españaŕen alde.-Beste izpaŕak.

ZER DAGITE PAXISTAŔ "EŔUGEAK"?

Andujar.—Atzokoan, arerioak go goŕ ekin zion Pozoblanco-inguruan batez ere.

Paxistaŕoa italiaŕ asko batu dituzte eta falangetaŕ, eŕekete ta moruak oraingo guda-oin onetatik beste batzuetara eraman.

Aldi batez arerioaren egazkiñak Pozoblanco'ra suagaka jardun dute, ondamendia ta eriotza zabalduaz. Paxistaŕok ankeŕok endatu dituzten etxetako bat eritegiá izan da.

"Virgen de la Cabeza" eleiza ere apurtuta utzi zuten egazkiñak

Bujalance'n ere italiaŕak dira gudukatzen asi diran gelenak.

Len aitatuko etxeaz gaiñera, Tetuan de las Victorias eta Puente de Vallecas'en eundaka etxe ondatu dituzte paxistaŕok. 214 il ziran eta 693 zauritu.

TXEKOESLOBAKIAŔAK ESPAÑA'KO ERALDAŔEN-ALDE

Madrid. — Txekoeslobakia'n Espaŕ Erkaldaŕei laguntzeko sortu daben Batzordea'k Madrid'era batez, be, osagai-tresnatan asko bialdu dauz ta iMaja jauna'ri ufutizkin auxe bialdu dautse:

"Gudarosteko Agintari agurgaŕi ta jakintsuak zure kemen eta adimen oliari mira-eginda dagoz ta zaregana zure agindupean jokatzera juateko gogoz. Batzorde onetara jo dabe ta eurok al-daikenez laguntzeko gertu dagoz. Ofa baiña ezin juan daikez ta emendik lagunduko dautsue.

Geu, be, Habsburgotaŕen erpepean bizi izan giñanaŕen, geure burujainbetasuna lortu genduan. Orain menperatu nai zaitue Hitler'ek eta zuek menperatu ostean geu.

Zuen lagunkide ta saminkide gaituzu, zuen izpaŕak aŕetaz entzuten doguz. Batzorde onek alegiñak egingo dauz ta emengo Gobernua'ri zuen baŕi guztiak azalduko dautsoguz ta Gobernuau, be, zuen alde jaŕiko dogu" Batzordea'k.

EUZKADI GUDARA

Euzkadi il eriotz zotiñez zegon zoritxaŕ aldian
faxixtak jabe egin nai ziran
indaŕez gure abeŕtan
Abeŕtzaleak ez jaikitzera
¡antxe zer gertatuko zan
oraindik bilduŕ ikara daukat
nere biotz baŕen:an
gure abeŕja euzko izaera
betiko galduak ziran!

Gudara giñan ta gudan gaude
Jaungoikoaren laguntzaz
beterik gogo biotz almena
Bere itxaropen onaz
Gabjitzan goŕi ta beltz artean
gu zer geran ayaziaz
aufera ere orain bezela
arpegi garbi emanaz
Jaungoiko eta gure abeŕia
majte degula esanaz.

Gure abeŕi azkatasuna
arerioen itzala
abeŕtzaleak gudan sartzeko
oñaŕi buru izan da
Euzkadi'n arerio maltzuŕa
izanik beti españara
lateŕi ontako efege zaleak
goŕoto onen sustraia
au zanpatzera nola ez jaiki
JEL alderdia gudara.

Euzkotaŕ gudari gazteak
bere odoja emanik
idaztia du euzko-edestian
oŕi ugari ederik
Euzkadi zuek gora dezute
lateŕi danen gañetik
ludian ea da gaurko egunez
Euzkadi'z mintzo ez danik
zuen kemen ta maitetasunaz
guziak daude aŕiturik.

Abertzalien zintzotasuna
len orain gero ta beti
era guztan egizko dala
gizona danak ba'dakj
Naiz karla faxixta zale danak
gure aufean iduki
jaŕai dezagun kemen guziaz
agitako bideari
guda amaitutu azka dezagun
gure abeŕi Euzkadi.

ATARENE.



Igiriñao aterpia Gorbea mendian. An atzian agiri dan galuŕa Lekanda arkaitzarena dozu, 1.380 na urkida goi-be dauzana.

ARAGON

Eŕepublikar saildiak irmo ta tinko

Barbastro.—Aragon aufeko guda-oiñetan gudatuten diardu.en saildiarekiko izpaiak dira onako onek:

Dufuti saildia.—Ebro Ego aldean ba ba taketa bai besteak et ugabeko zunbaketari eman zioten, baiña, ez ian kalterik izan. Perdiguera inguruan arerioaren saildi batek kañoiak goritu arteraiñoko zunbaketa asi zuan, baiña, bai elkaŕdaŕak kemenez erantzun ere. Arerioak zauritu ta ildako asko izan zituan. Onderen paxistaŕ egazkiñak agertu ziran erkaldaŕen kañoiak deusez teko asmotan, baiña, utz egin zuten danetan. Onian, erkaldaŕen egazkiñak. Laistef ziran, beti lez, besteok igesi. Beste guda oñetan ez zan kalterik izan.

"Alas Rojas" egazki -taldeak, arerioa ren bastefak aztertuaz, ega ta ega jardun zuan.

Carlos Marx saildia.—Arerioa, auferatu naiaz edo, zapaŕadatxuka asi zan, erkaldaŕak baiña, euren buruak eskutatu ta paxistafok uferatu ziranean, egundoko zigoŕa leporatu zieten eta zufatutakuok igesari eman zioten.

Arerioaren saildi batek Casa Inquisidor alderuntzkoa aftu zuan eta gogoŕ eraunts: lotu. Erkaldaŕak ere gogoŕ ekin zioten eta, iru orduz bizi bizi jarcun ondoren, lufa zaurituz eta ildakoz utsi ondoren, atzera egin beaŕ izan zuten paxistaŕok.

Alcubierre'n, ezer ez.

Izpar itunak

Mundaka'n il da bere bizitzako laroge-tazortzigaŕen urtetan, Gaŕo ta Basteŕetxea' taŕ Jon Andoni jauna.

Oso ezaguna eta maitatua zan bizitzan uri oŕetan ezezik auzoetan be, alakoxe amultsu eta jatoŕa bai'genduan.

Gauŕ, Mundaka'n bertan ,goizeko amaŕetan izango da gorpu-lofa eta ondoren, Miren Deuna'ren ertxadonan, ildakoaren gogo aldezko ileta eta otoyak.

Bere senidiei geure tamal aguŕa agertzen dautsegu atsekabe aldi onetan, eta batez bere, gure lankide azkaŕ Bernarta Mirena aren semeari.

Goyan bego.

Paxisten guda-jokaera

Mexiko.—Madrid aftzeko paxistak egin izan daben boskaŕen sayaketa zer eratakoa izan dan aztertu dau William Duindre amerikaŕ guda-jakintsuak, Gudalajara aldeko joaldiaz ari da.

Une batetik, soldau pilo izugaŕiak aŕaonaladan auŕerakada egitea alemanen guda ¬rea da, oŕela bilduŕ izua saŕtzeko arerioari.

Era oŕetaz eraso dabe oraingoan italiaŕak be, bañan poto eginda lotu dira. Españaŕ erkaldaŕ gudarostea ez da orain matxiñada asierakoa, ez gudaroste onen auez, ez da gauŕ eŕez aufera egiterik.

OŔI BALTZA

Gaŕo eta Basteŕetxea'taŕ Joseba Andoni il da. (G. B.).

Bere bixitzan, euzkeldun-euzkelduna ixan zan, kistaŕ ona ta abeŕtzale zintzua.

Euzkadi'ko itxasuri gentzatsu ta polifan bixi ixan zan, bijotzez maŕe ixan eban Mundaka txukunian.

Eta ain maŕe ixan eban uritxuba betiko laga biaŕa ixan daben une estuban, bixitza zurubijaren 87'gaŕen malaraño elduta aurkitu ixan da.

87 urteko bixitza luziaren urte-buruban adizkidez inguratuta bixi ixan dan aguŕa aguŕgaŕijaren erijotzea, eŕi osua itunez itunduta jarteko lakoxia dala, ondo be ondo dakigu. Gaŕo zanaren erijotzea bide samiñik saminenaz saminduta geratuko ziranak, baña, aren seme atsekabetubak ixango ziran: Jon Andoni jauparija, Josu Mirena, Bernarta Mirena eta Kandida.

Ixan daben atsekabe-aldijan lagun gayukeze. Batez be, baña, "Otxolua" adizkide ta euzkel-idazle jayuari be -yuakijo gure samin-aguŕik anaikoro. onaŕte txiki bat daskeŕzugu: Gaŕo agura aguŕgaŕija ixan zanaren gogo -aldezko otoi bat.

QUEIPO'K ESAN DABELA-TA

Eŕijaren zorijonak dantzan iminten daben emakume bat, gosiaren erailtzalia dan egunoroko ogi-opila besapian dabela etxeruntz igitu dalan. Queipo'k iŕadotsez edatuten dabezan izpaŕakaz goxalduten dan beste emakume bataz aurkitu da.

Eta lenenguak, besapeko opila erakutsijaz , bigaŕenari olantxe esan dautsa:

—Gure euzko-aginfarijetzaz gura dabena esango dabe. Baña oneik, egunoroko opiltxuba emon barik nekez itxiko dauskube.

—Queipo'k beste gauzarik diño, ba paxiotaŕ emakumiak erantzun dautsa.

—¿Zer diño, ba, Queipo'k, zer...?

—Bilbaotaŕ saspi goseti bata-bestiaren leyan sagutxu baten jaŕai ikusi gura leukezala. Eta gurari ori egifuta imiñi aftian, bilbaotaŕai gosia bidaltzeu ez dala aspertuko.

—Queipo dan lako guzufti batek esateko guzuŕ txikija da ori, alabatxu —Bilbao'ren zorijonez poztuten dan emakume zintzuak erantzun dautsa.

—Guzuŕ edo muzuŕ, beste izpaŕ au be, Queipo'rena dozu, ba, emakume —ostera be, paxiotaŕak—: zer jazoko be, landako bedaŕik oñakaz ez zapaltzeko esan dau, arek, onenian bilbaotaŕen janarija landako bedaŕa ixango dala-ta.

⁂

Bidian alkaŕ idorotian bata-bestiaz egin ixan daben alkaŕ-izketa bakan oŕek, baŕe-guria softu ixan dausku.

Queipo'k iŕadotsez edatuten dabezan izpaŕai, diran bakanak diralako -edo, antzokijetako baŕeragiliak esaten dabezan zorakerijen antza aftu ixan dautsegue, ba: payasokerijen antza, irakuŕle, payasokerijena...

⁂

Payasorik-payasoena dala jakinda be, baña, Queipo'k iŕadotsez edaluten dabezan izpaŕak egitzat aftu, ta egitzat edatuten dabezan paxiotaŕ asko bixi dira baztaŕetan.

Eta bilbaotaŕ saspi biztanle gosetijentzat sagutxu baten okelea saneuŕi oŕetan iminfiari egoki eretxiko eutsenak be bat baño geyago ixango dirala uste dogu.

⁂

Queipo gixagaxuak, guramenian softuten yakazan gurari bakanak eruan gura leukezan lekura eruateko almena ba'leu, ¡amaikatxu bakankeri ikusi biaŕ ixango geuke, irakuŕle!

Saspi bilbaotaŕ, saspi gosekil, sagutxu baten okelearen jaŕai katutxubak bai-liran bata-bestiaren leyan ikustia, ¿bakankeri gustijen aftian ba kankerijena ez ete-da...?

⁂

Landetako bedaŕ ezia oñakaz ez zapalduteko esatia be, geidiaren gosiaz eta zoritxaŕaz amesak-ames egiten ez dabezan gixon koldaŕa ta ankefaren guramen zifalaren ondorena ez danik. ezin esan ixango da.

Guramenak esaten dautsana egiteko almena ba'leu, bilbaotaŕ gosekilal landako bedaŕ ezia iaten imiñiko leukez Queipo'k.

Gixonak landako bedaŕa jaten ikustia be, bakankeri txikija ez litzake ixango baŕiz.

⁂

Queipo'ren guramenak gura dauna gura leuken lekura eruateko almena ba'leu, beste bakankeri au be ikusi biaŕko genduke: landako bedaŕtzara bota dabezan bilbaotaŕak zaintzeko Queipo'k eskuratuko leuken zigoŕa. Queipo "katoliku" aundijaren gurariŕik bixijena, orixe dala esan leike, ba: bilbaotaŕ abeŕtzaliak bere zigorpian landako bedaŕa jaten landara eruatia, ¡Gaxua...! Queipo'ren amesak ames bakanak dira, gero...

ERABAGI ZUZENA

Orniketa-zainguan erabagi zuzen bat aftu ixan dabe: basetxerik-basetxe eskeko-antzo ibilfia galen-bian gebendutia.

Iñoz aserik ez dabela ezagutu erakusten ixan daben batzuren eten bako etxerik-etxe jateko bila ibilfia, lotsagafija ixan da ixan be.

Euren urdalakaz baño oldoztuten ez daben gosiaren geznarijok, sagutxu baten jaŕai bata-bestiaren leyan arin -arinka, Queipo'k ikusi gura leukezan saspi gosetijen eredu, Queipo'ri argazkifuta bidaldutzeko lakoxiak dira ixan be.

Diru laŕegijaz gexotuta dagozan gosetijoi basetxietara jaki-bila juaten gebendututiaz, Queipo'ren gururijei be atiak izten yakazala dirudi. Beraz, orniketa-zainguan artu ixan daben erabagija, zuzena da.

"UZTARO"

Aftu dogu "Baŕensoro,,'k ain zintzoki bijaldu dauskun elebaŕija.

Astirik giŕxi baño ez gebala eta, guda oñera igon baño leen zertxu bat irakurten asi gintzan.

Laŕara edo "naranja,,'txua lez geban irakurgai eskuetan. Lenengo oŕija: —Ene? A! Zarautz'taŕen izkerea; elebaŕiak berak alaxe eskatzen bait dau. ¡Banenguan ba...!

Nik neuk izpaingijan erabilten dauan izkeria sendoagua eta osoagua dala deritxot. "Baŕensoro,,'ren euzkera mardulera egiñak garala aspaldijon. ¡Oŕ konpon! Nik neuretzat diñot bakaŕik. Elebaŕiak beste erabat biaŕko dau.

Ori laŕanaren ezala baño ez da. Kendu dogu azal ori. Ezpanetara uŕeratu be bai. ¡Au laŕaslaren goxua? Arnasa artzeko artirik barik irnutzi arte ekin deutsogu. Irakuŕi-aldi bitan amatu dot dana. Betarik ba'dot baña geldiroago irakuŕiko dot uŕenguan. ¡Idaztiaren goxua! ¡Eskaŕik asko, Tomax!

Elebaŕi ori egin daunak, beste irakurgairik goguan ixan barik, baŕi-baŕi ren bategaz euzkerea aberastu leikeala uste dogu.

Urteak baieztuko gauz. ¡Aguŕ! Zorijonak.

Uaŕa. — Iru "Uztaro,,'ren ordez 15 laurleko aftu zebazala eta, idatzi euskuzun eskutitztxua geuganatu geban. ¡Erderaz egiña gañera! ¡Euzkeraz apuŕ bat ulertzen dogu, lagun!

Karmelo'rako emondako efekadua bete geuntsun.

Aguŕ.

LAREA'TAR JON.

BAKEAREN ALDE

Lateŕi Batza'ri dei laŕi bat

Ginebra.—Bakea en aldeko batzorde nagusia batu da Eŕi guztiei bakea dei egitea erabagi dabe.

Lateŕi-Batza'ri dei laŕi bat egitea onartu zan España'n bakea egin daiten lan egin dagiala eskatzen.

Gernika eta Mungia ingurukoei

Guztientzako jakingaria

Gustiei jakin-arazoten yake, Euzkadi Jaurlaritzako Salerosketa ta Eŕi emoketa Zaingoan otsalaren aginduaren bide-dala .17'gaŕen agintzeak diñoenez eta jaki taldeko Zuzentzak ila-baratako 14' gaŕen idazkia bide dala:

Etxe eta baseriotan jakiak saldu eta erostea gustiz galerazota dagoz.

Gernika baŕuiko agintariok, aren eŕitaŕ dan-danari agintza ari zintzo bete dagiala eskatutzen d egue eta jakiak beaŕ dabezan guztiak Mungia ta Gernika'n astearo ospatutzen dan azoka edo plazan erosi beaŕ dira, aufetiz jakintaldeko zuzentzaleak izentauriko saneuŕi edo preziuetan, eta jakiok edonora eroan dagiezan agiri berezia emongo yake, oŕetara iñok eztagian piloka jaubetu.

Aginduok beteten ez dauzan gustiak gustiz zigoftauak izango dira eta oŕez ganera erositakoak kenduko yakez.

Gernika'n 1937'ko, epailaren 15'an.

Mungia eta Gernika'ko endoreak.

BURU APUŔ BAT

Madrid. — Valencia'n, iganderako txarlotada bat iragaŕi dutela-ta, asaŕe lotu da "Castilla Libre" izpaŕingia.

Izpaŕingi oŕek dionez, lelokeriefarako baiño egun gaŕatzagoak ditugu.

"Burutasun geiago—dasa izpaŕingiak—burutasun egiago gaŕatzkeriokaz apuŕ bat geiago oldozteko."

ODOLAREN GOŔIA UGARI

Madrid.—Madrid'ko Udaleko agintariak emandako izpaŕak diotenez, paxistaren kañoi eta egazkiñak, 98 etxe apuŕtu ta ondatu dituzte azkenengo azaroko zaspigaŕena ezkerotik.

91 etxe oietako lau, ikastolak dira; zortzi eleiza, zaŕ eta umeen bederatzi eŕuki-etxe, lau eritegi, bi museo ta Edesti Ele-Txaindia.

Paxistaŕen suagadok bide, 907 lagun il ziran, 2.809 zauritu. Geroago 2.809 oietako 370 il dira.

Oŕetaz gaiñera, 430 dira galdutakoak. Geure baŕuti ederenetako bat zatituta gelditu da: Arguelles.

⁂

Guadalajara.—Atzo goizez eŕi-aldezleak agintarien esanak beteaz, Guadalajara'ko Ipaŕaldean paxisten aurka bizi ekin eutsen. Eguna zabaldu ordukoxe, eŕi-aldezleen suagalariak paxisten guda-tokiak suagatzen bizi ekin eutsen. Suagok galtza aundiak egin eutsoezan paxistoi, ilefan eta zauritutan, be, asko izan ebezan eta ilok eta zauriuok jasoten estu ta laŕi jbili ziran.

Zapustu oŕen ondoren, guda-joaldia asi eben. Suagalariak suagak mefsago jaurtzen ebezan erkaldaŕ gudariak, aufera egin egien. Euri aundiak ziran baiña eŕkaldaŕok aufera egin eben eta suizkilubizkoŕak paxisten guda-tokien ondo-ondoan ipiñi ebezan erkaldaŕok. Paxistok iges egin beaŕ izan eben eta orain tokiak eŕi -aldezleen mende geratu ziran.

Paxistak atzo goize zauritutan eta ilefan irureun inguru izan ebezan.

Akilana

Euzkera maiaburura jaso ta edozein gairako ixango ba'da, eta akilantsubak euzkeraz ixango ba'gara edozetarako ixan be ixan biaŕ dau, gustijok eta bakotxak euzkera-aldez lan eta lan egin-biaŕ dogu, oraindiño maiaburuban baño asko beratxubago dalako.

Eta egoera ori beria da, zoŕ dautsagun baxen jangile ixan ez garialako.

Nik bultzada andirik ezin egin neuskiola iñok baño obeto ezagutzen dot, augatik geyenez ifaunka ixaten naz.

Gauŕ irakasle ezagunak ixan dodazakana eraz jo-ezinda; izpaŕingiz, dakijen eta edozeñentzat be irakasle ixan dagikezan gustijakana joten dot. ¿Iñok jaramonik egingo ete-dausi? Iñoz Uŕiolabeitja'taŕ Amantzi'k izpaŕingiz be egin dausi. Amantzi ona, "Naufragio" ixenatzaz "Euzkadi" egunorokuan egin eustazun erantzun, eta azalben egokija buruan ete-dogu? Aldi atakuagafik eskafikasko, eta baŕiro be eskaftu-biaŕez isten nozun.

Zjatziz erantzunge ez zadi ixan: "Aitzol" jakintsubak universalfetzaz Unamuno'ri erantzunaz esan eutsana goguan dozula, euzkel-ixen egokijak erabili dagiguzan lagun-zakigu, al dozu-a.

¿"Esencia", "existencia", "substancia", "potencia", "jakintzetarako biaŕ diranian euzkeraz zeian esan dagikeguz?

Esencia "ixa": existencia, "ixate": "subsistencia", "ixatoso": potencia "afmen", edo "edemen" ¿egoki ete doguz?

Edozer be, "dana" esenciak egiten dau, esencia barik ezin ezer be ixan dadike-ta. Eta au "ixa,,'k egiten dau ixa-barik, esencia-barik, ezer be ixan ezin dalako. Ixa'dun dala edozer be eginda-da-ta, ixa berezidun da, eta nik emen imiñi dodan ixa berezija ez da "esencia" itza be esencia berezija ez da orokoŕa ta afunta baño.

Zugatza edozein ixaduna ez da, zugatz ixaduna baño, eta bardin beste edozein ¡razaki. ¿Zein ete da irazaki bakotxaren ixela? ¿Au dakijanik eraindiño ez da jayo, jayoko bez, beraz, ixena baño ez dakigu, bera ezagutzeko gure ulermenak aldiñik ez, eta ixen utzez nalkoti-biaŕ.

Ufenguan geyago.

TABIRATARA

EGUNA JEL

Lgo. urtia | 66'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 937'gn. epalla 8'gna. eguena | 15 eunen

Ama ilgo zara motzen azpian, ilgo zara zeu betiko?
¡Itxaron Ama iarion biot, neure odola lenago!
ARANA-GOIRI

AZKENENGO IZPARRAK

Mayatza'ren 6'gaŕenean bake aldeko batzar andia egingo da

Huesca inguruetan kataluniar gudariak beŕogei lagun il paxistei.-Degrelle, Belgika'ko paxisten burua zauritu ete dabe?-Rusia'ren gudaroztea.-Chamberlain'en eriotzea eta frantzetar izpaŕingiak.-Beste izpaŕak.

IZPAŔINGI BATERI KATIAK IPIÑI

Barcelona.—"La Batalla" izpaŕingia lau egunez ixildu dau Generalitat'ek zentzurak galarotako izpaŕ argitaratu dabelako.

Txiŕistadak

Gudari baten esanak:

"Bilbao'n ezin lei bilatu abogadurik, idazlerik...."

Guzuŕa daja uste?

Bai, zera!

Begiratu izpaŕingietara.

Uste dozue idazlerik ba'lego ainbeste baltsune agertuko litzakezala egunero? Zentsoreari eŕua emon, baña...

* * *

Katolikuak ez giñala aŕtuta geunkan.

Batak esan eta besteak ekin, mutil tentelei jazoten yakoena jazo yakun.

Nai ez ta bere ziñestu egin beaŕ.

Orain ofaitik baŕiro dudan jaŕi gara.

Egazkiñetatik ofi andi batzuk bota dauskuez katolikuoi zuzenduta. Eta buruari ats egin dautsagu.

Eurak izan ete dira ba? Eurak?

Txistik esateko adorerik barik geratu gara.

Katolikuak!!

* * *

Euzkerarik iñok eztabela ulertuten?

Baten letra txiki bat ipiñi gendun eta berialako baten zarataka gendun beretzat aŕtu eban jaun bat.

Araŕegun izpaŕ bat emon gendun. Eta Bilbao guztian besterik etzan entzuten.

Olo bana emongo dogula esango ba genduke...

Ez ete leuskigue ulertuko?

* * *

Burgos'en burua galdu dabe.

Afitzekua ezta

Ainka jokua asi baño len burua galtzea oba izaten ei da-ta!

Radio'tik euzkeraz eztira asi ba?

Azkenengo dei jaŕiak dirala eztozue igarten?

Burgos'tik euzkeraz!!!

Efekaize gogoŕak jo dau oraingoan.

Galefenarik ez ete dau ekaŕiko?

ONDAR.

Ordez "La Batalla Obrera" atara nai izan dabe baña zaintzaliak batu egin dabe.

EGAZKIÑAK GOYAN

Barcelona.—Egazkiñak ibili dira. Bilduŕa eŕian. Baña egazkiñok eŕepublikaŕenak ziran. Eurak goitik agertzean adaŕ-otsa jo da. Gero zuzendu da okeŕau.

GABEKO IZPAŔAK

Barcelona.—Bederatzi ta erdietako izpaŕak.

Huesca inguruan guḍariak paxisteu esietara sartu dira. Beŕogei il dautsez.

Amaŕ izkilu ostu eta guda-tramankulu ugari.

Gudariak ondo, baja gitxigaz.

DEGRELLE ZAURITU?

Bruselas.—Bergano'n itzaldi bat egiten egoala Degrelle zauritu eta daben zabaldu da.

Entzule batek botila bat jaurti dautso.

Beste baten benenoz betetako botila bat jaurti eutsen. Kalterik ez oŕaitik.

BAKE BILA

Paris.—Bakiaren aldeko batzordea batzaŕean batu da.

Mayatza'ren 6'an batzaŕ andi bat egitea erabagi dabe bakeren alde.

FRANTZE'KO IZPAŔINGIAK ETA CHAMBERLAIN'EN ERIOTZA

Paris.—Erbeste arazuetako idazle guztiak Chamberlain'en goraIbenak egin ditue izpaŕingietan.

"L'Echo de Paris"-en Pertinax'ek, politika burugazi ez zala Chamberlain, esan dau, baña izaera jator batek oi dauan lotsa ta begiramena lortu eban.

Zalduna oso zala, diño "Le Figaro"-k, berez, gogoz eta soñez txaino eta jasekoa zalako. Locarno'ko itunbenaz bateangoa da bere izena. Alemania'tzaz uste onik ez dau bene.e izan, eta geŕak aldendutea eban ames. Berlin'en nazitaŕak agindari jarri ziranean, Inglateŕa'ko izango zituen aŕiskuak iragaŕi ta adirazi ebazan.

"Le Journal"-k, iritzidun gizon bat joan dala diño, eta "L'Ere Nouvelle"-k ingeles andi ezezik, europataŕ andi be ba-zala adirazten dau.

LAGUNAK ETXEAN PALTA

Barcelona.—Olalde Salustregi epaikaritza-gizona bere etxetik aldendu egin dala ta, Audientzitik agiria bialdu dabe aldi -epaikaritzara, auzi idazkia eta argibideak egiten asi daitezan.

AU, ORI TA BESTEA

Asturias'en gora-bera gitxi.- Guda laneta-rako ogei milloe.-Sariñena'ko guda oñetan. Madrid'en euriak-euri eŕepublikaŕak auŕera. Maŕuekos'ko buruak Valladolid'en.

ASTURIAS'EN GORABERA GITXI

Gijon.—Artileriak jardun eban atzokoan, alde bietatik, baña zayaketa gogoŕik ez. Azken egun oneitan beste ofenbeste izan dogu.

Paxisten egazkiñak bein baño saŕiago eldu yakuzan. Amairu giño izan ziran ostera baten, bañan bonba jaurtika erasotekotan etziran atzokoan.

Ikusketak egiten ari ziran eta ondoren auren lekuetarantz aldegiten ikusi genduzan.

Emengo egazkiñak ere, beste ainbeste egiteko izan eben. Paxisten lekuak zeatz -meatz ikusten ari ziran, eta geyagoko barik itzuli ziran.

Guda-oin oneitan egun baketsua, beraz, atzo be, gorago aitaturikoa baño beste azalkairik ezpaitogu.

GUDA-GINTZAETARAKO OGEI MILOE

Barcelona.—Generalitat'ek izan eban azken batzaŕeko gayen artean, erabagi auxe be ba-dogu.

Guda-Industrietarako gastuak ornidutelko ogei miloe peseta izentau ditue.

SARIÑENA'KO GUDA OÑETAN

Sariñena.—Koŕeo bultziari eraso eutsen eŕizalien kañoiak eta bai aparan be. Ondoren, amuŕu bizian, asi ziran paxisten suagakariak, baña etsi, eta ixildu beaŕa izan eben.

Sabiñanigo'ko ola eta geldokia erdi apuŕtuta utzi ditue. Estaziñoia su ta gar agiri da.

Paxisten kañoiak, alegiñak alegin ondoren be, eŕizaliŕak nun egozan igaŕi eziñik ebiltzan. Lan ori alpeŕeko ebela susma ebenean, lerki granadak botaten asi ziran; ondoren onik ez eben lortu, baña.

Oneian, paxisten egazkin taldea eldu zan eŕizalien gain egazka: "Heinkel" bi, eizako bi, eta monoplano bi ziran. Eŕizalien eizakoak igo ebenean eta uferatzen asi, igesari emon eutsen, eta gero ez ziran geyago agertu.

MADRID'KO EURIAK-EURI ERKALDAŔAK AURERA

Madrid.—Atergabeko euria izan zan atzo. Euriok - euri, efi - aldezleak baiña agintariak ezer agindu eutsen tokietan, aginduteko bete egin eben.

Valdearenas inguruan esker-aldetik Briheuega ondoragiño eldu dira. Bitxabal -ondorago Brihuenga aufe aufean dagoz erkaldaŕ gudariak,

Eurlaz gaiñera goi-esteria ta lañoa ugari egon zan atzo ta erkaldaŕ egazkiñak, be, lan andirik ezin egin al-izan eben.

Atara ziran ofaitiño ta paxisten guda -sailak ikusten ibili, be, bai; suaga batzuk, be, jaurti ebezan paxista guda-lekuetara.

Jarama'ko El Escorial'go, La Coruña bitxabaleko ta Avila probintziko efi-aldezleen kañoiak naiko lan egin eben oraitiño. Paxista guda toki batzuk egundokuetan astindu ebezan.

MARRUECOS'KO MUSULMANDAŔEN BURUA

Araŕegun Valladolid'en zan Marruecos'ko Musulmandaŕen Burua.

Egun batzuk auferago Donostia'n egon zan; laster Salamanca'ra joko dau: Musulmandaŕ Buruoi paxista-agintariak ekaŕi dabe España'ra.

Valladolid'en beran - berarizko aferea egin eutsen asaldari-agintariok. Zauri -etxeak ikusten izan zan Musulmandaŕ Buruoi, zauri-etxeetan moro zaurituak eta europeaŕak zelan egozan ikusten. Izpaŕ oneik paxisten ifati edo radio batek emon dauz. Zaurituon artean Europa gustikoak daukez ausako, eurak aitzen emon dabenez.

Musulmandaŕ Buru dan Mohamed Ben Ali'ri bere agintari-laguntzaleak eta Paxista Gudaroste Agintari Nagusiak lagun egiten eutsen. Udal-Etxe'n Alkateak egin eutson ondo-etoŕia ta batzaŕ-tokian "te" bana artu eben.

Alkateak e[illegible]ndaŕ Buruak itz egin eben. [illegible]n Ali'k onantxe amaitu eban

"E[illegible]pañaŕ [illegible] irabazi dagian guden, otoi d[illegible]engoikoa'ri".

Aŕatsaldez Valladolid'tik alde egin egan.

Olalde'ren etxera iña onen 4'gn. gizonezko batzuk elḍu ei ziran, eta aren anai Pantzeska ta Perdiñanda eta loba bat eta sukalde-neskamea eurekin eroan zituen.

Aleginak gorabera, iñok ez daki lagunon baŕik.

RUSIA'K GERTAUKO DABEN GUDAROSTEA

Moscu.—Agindarien agiri batek diñonez, 12 miloe ikasle ila onetan asiko dira guda-ikaskizunak ikasten, batez be karabina jarḍunez.

EREGE JAYETARA

Londres. — Inglateŕa'ko eŕege jayetara Rusia'ren ordez Litvinoff, Tukatxesky eta beste bat juango dira.

BOLIBAŔ GOGORATZEN

Caracas.—"Apolo" ingeles ontziko mariñelak eldu dira eta Bolibaŕ'en oroi-afiaren oñean lorak ipiñi ditue.

ORDEZKARIAK ALDATU

Londres.—Grandi, orain Italia'ren ordezkari danaren tokira Ciano'ko kondea etoŕi'ko ete dan zufumuŕua dago.

Epaitegian

Atzo-goizean jaŕaitu zuan Eŕi-epaitegiak Elantxobe'n aŕapatutako iges egin nai zuan taldearen aurkako auzia aztertzea.

Beste batzaŕetara berelaxe, aztokora ere ikusmira asko asko batu ziran

Laŕinaga, Azkunaga, Duñabeitia ta Artaza itzlari-aldezle jaunak itz egin zuten.

Bereala erantzun zuan epai-aztertzaile Gomendio jaunak. Gudatean gaudena eta beraz erdizka ibiltzerik ez dagona aztu egin izan zitzaiela nonbait, esan zuan. Euzkadi ta Erkal-alde, Euzkadi ta Erkal -aurka bestela. Erdikorik ez dagola orain, azaldu zuan Gomendio jaunak.

Alzaga, Ruiz Agiŕe ta Laŕinaga aldezle-itzlariak ere bereala erantzun zuten.

Epai idazteak asti luzea bear duala-ta, gaur goiz arte eten zuan lendakari jaunak batzaŕa. Amaŕeta erdietan asiko da gaur.

Ixas-gizonen alde eta goran

Jaikun eta kirol-sayaketak biar, Bermeo'n

Txiŕindulariak, lasterkariak, ukabilketa

Egundoko egitarau biribildu dausku gure gudari azkaŕak biarko. Ez da lenengoa aspaldion. Ezta azkenengoa, ere, ordez.

Jai gomutagaŕia izango dogu Bermeo'n. Abeŕaren ziñopa aintzagaŕi izatera eldu izan yakuzan gure itxasgizon bikañen guraldenerako izango dira auren anai gudariak antola dituen egikunok.

Abendaren azkatasuna zaindutearen jausi izan diran euzkotarak, lan ortan oraindik ere gero ta gogotsuago jardun bear izango daben aberkidien gorazefe-aguŕa jasoko dabe biar.

Pirata indartsuen aufez aur bulartzu ziñarduela jaisi ziranen sendien alde, batean egingo dogu biarko omenaz. Laguntza b[illegible] lotu diran bermeotaŕ sendien a[illegible].

Ona emen egitaraua:

GOIZEAN

Kortziretan, goiz eresia.

Bederatzi ta erdietan, jaupa eta "Itxarkundia" gudataldeko "Belabita" mailaren ikuŕin onespena.

Amaiketan, txiŕinguto-lasterketa.

Lasterketa ori bukatu ondoren, amabi ta erdiak aldean, aufeskua.

ARATSALDEAN

Iruŕetan, oñezko kofikalariak, Bidea, Bermeo Mundaka-Bermeo.

Lasterkari azkaŕak, oso ezagunak parte artuko dabe.

Gipuzkoa'ko 10.000 metrotan txapeldun dogun Beloki. Etxebeŕia'taŕ Efamon...

Campos'taŕ Kipiren, Soraluze'ko Ixkia, "Ufamendi", eta abar, sail edeŕa batuko da, zeŕek baño zeŕek jatofago agertu nairik.

Lauretan, Anzoki Baŕija'n, ukabilketa sayoak.

BURUKALDIAK

Aranaza, Bermeo'koa, eta Zamalloa, Bilbao'koa.

Ibaŕondo, Del Rio, Grela eta Bueno, oŕa ukabilkari azkaŕak.

Aranbillet, Euzkadi'ko txapelduna, eta Pinedo be, antxen izango ditugu erakusketaren bat ala beste egiteko.

Ondoren, Ertzilla-egurastokian, gazte jayak.

Gogoa alaitu, soña sendotu, gizagurenak aintzatu, lagun-beaŕak sorozi! Biar, Bermeo'n...!

Ez-sartze komitearen batzaŕa

Londres.—Ezetan ez[illegible]aŕtzeko batzaŕean Komitiak eragozpenak aurkituten ditu Italia eta Alemani'ren ordezkariyak aŕtuten dabezan eskubidiakatik. Lateŕi gustijetako ordezkariyen asaŕe bizija nabaitzen da. Atzoko batzaŕian eztabaida aundi bat sortu zan. Eztabaida aŕi Can[illegible] gora-beriak sortu eban. Von Ribbentrop'ek eskatu eban España'ko uŕe kutxa edo bankuan erabagija azaldu biaŕ zala. Eŕusia'ko ordezkari Maiski jaunak erantzun eutsan gora bera au erala saŕtzen egunari yaokon agirijan, eta eztagola zetan azaldu gora"bera ori.

Emen sortu zan zapaŕada ixugaŕizkua. Zapaŕadia Von Ribbentrop'ek eta Maiski'k ixan eben. Eztabaidia baltza egoan eta lendakarijak amaitzat egin biaŕ ixan eban batzaŕa.

Maiski'ren eskakixuna, aufkezle gustijak ontzat aŕtun eben. Eta dana[illegible] mintzatu ziran ezegola zetan azaldu España'ko uŕe-bankuatzaz ezetariko azalpenik. Batetik ezegolako egunari joakan agirijan eta bestetik, eztagolako batzaŕaren baŕuan aŕtunda.

Batzaŕa amaituta ordezkarijen aŕtian Italia'n eta Doixteŕija'n aurka adirazpen aundijak egiten ebezan Komitiak auŕera eruan gura dauz alegin aundijenakaz, España'n gudatuten diran atzeŕitaŕen galazoeak. Au alderdi bijetan diran atzeŕitaŕari lagokionez da. España'ko [illegible]au bere idekotasuna, alderdi bijetako atzeŕitaŕak España'ko gudaketatik ateratiari ondo be ondo deritxola.

Italia eta Doixteŕija ixan ziran oraiñ iña bi asmoa agertu ebenak eta oraiñ eurok lira auŕera eruateko eragozpenak bilatuten dabiltzanak.

Komite'n baŕuan asaŕe aundijetarikua sortu da. Eta elitzake bape miraŕik ixango ufengo batzaŕetan erabagijak ontzat aŕtutekoz baliŕa, autaŕk bitartez, eta emen emongo leukie euren erakutsija Von Ribbentrop'ek eta bere lagunkide Italia'k.

OSTIKOKETA

"EUZKADI" EGAZKIN-ALDE Datoŕen igandez San Mames'en

EUZKO-EKINTZAKOAK ETA JEL -ALDERDIKOAK

EGITARAURIK BIRIBILENA

Datoŕen igandez, epailak 21, ostiko jokaldirik alpagaŕiena izango degu. Datoŕen igandez, eguraldia lagun badegu, ostetza ederik batuko da San Mames'en.

Euzko-Ekintzakoak eta Jel alderdikoak ditugu ostikokalari. Bikaiñenctakoak dira gure mutilak, benc-benetako ostikokalariak.

Iraragoŕi, Langara, Gorostiza, Bata, Zubieta, Areso, Pablito... badakigu nortzuk diran. Azkengoz jokatu zutenean San Mames'en izan giñanok ba dakigu euren beŕi. Langara'k azkenengoz bezela jokatzen badu, Iraragoŕik lenguneko "era" eukitzen badu, Gorostiza'k arako aŕétatsu jokatu... ez degu nolanaiko afatsaldea izango. Badakigu mutilok benc-benean jokatzeko gogotan dirana, Jel alderdikoak lengunekoan galdutakoare bila joatekotan dira ta gurenda etxeratzekotan.

Euzko-Ekintza'ko mofoskoak ez dute lengoan baiño gutxiago egiteko asmorik B[illegible]aŕen guredaren b'la dijoaz Ori da, ori! Biak guren'a bila. Gu[illegible]ndari buru-belaŕi. Iefenak egingo ei [illegible]'tuzte. Eg'a ete? A zelako afatsaldea datoŕen igandekoa!

Ostikokalariak "lokatu" egingo dute ta ikusleok "ikusi".

Gora Euzko Gudaroste! Egitarau biribilena eskuratu diguzu ta gurendarik mardul eta biribilena lortuko dezulakoan gaude. Ostikoketa zaleok dizugun eske-miña!

Igande-afatsaldea. Epailak 21. Ostiko-jokaldia San Mames'en.

San Mames'era igande-afatsaldea guztiok!!

Euzko gobernua batzaŕa

Atzo goizeko amaiketan E[illegible]adi'ko Gobernua batzaŕean batu zan. Bestetan lez ordu batetan batzaŕa altzau zan bostetan jaŕaitzeko.

Zortzirak inguruan amaitu zan batzaŕa ta Leizaola jaunak agerpen onetxek egin ebazan.

Osasun gayetzazko asmo bat agertu dau Osasun arduradunak eta batzaŕkideak asmo ori ikasteko geratu dira.

Orniketa gayetzaz jardun gara eta guda lanetan diarduen langiliei janari geyago emoteko usteak agertu dira.

Gasolin-saltzeatzaz be ibili gara.

Zuzentza'ko lege-gai bat onartu da, epailegietako idazkariei idazkaritzen biar izanetarako dirua auferatzeko eran. Amnistia'ko lege bat agertzeaz be itz egin dogu.

Gero guda eta politika gayetzazko ikasketa bateri lotuta ibili gara.